

# Lazkaoko Beneritarren dokumentazio-gunea

## Juan Jose Agirrereren artxiboa

Joan Mari Torrealdei

---

Lazkaoko Beneritarren Fundazioa

## *Laguntzaileak*



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Lazkaoko Beneditarren Fundazioa**

Eskubide guztiak jabetunak dira. Galerazia dago liburu honen kopia egitea, osoa zein zatikakoa, argitaraldi honen jabeen aurretiazko eta idatzizko baimenik gabe.

*Egilea:* Joan Mari Torrealdai

*Argazkiak eta agiriak:* argazki eta agiriak artxibategikoak dira salbu eta Juantxo

Egañak libururako eginak. Egañarenak orrialde hauetakoak dira: azala, 11, 13/2,

17, 24, 26, 27, 28, 33/1, 36, 38/2, 39, 45/2, 46, 47/2-3, 48, 50, 51, 54, 55, 56, 57

*Infogramak:* Joxean Apeztegia

*Diseinua eta maketa:* Imanol Tapia

*Argitaratzailea:* Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

*Inprimaketa:* Leitzaran S.L.

© Joan Mari Torrealdai

© Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

I.S.B.N.: 978-84-95234-42-1

L.G.: SS-667-2011

## Aurkibidea

ATARIKOA. Rufino Mujika .....	5
HITZAURREA. Joan Mari Torrealdai.....	7
<b>ALEGIATIK LAZKAORA</b> .....	9
Alegia .....	9
Lazkao eta Beloke .....	11
<b>IKASTETXEA</b> .....	12
Irakasle eta arduradun.....	12
Itxiera.....	12
<b>LAN ALDAKETA</b> .....	14
Medikuntza ikasi nahi.....	14
Bibliotekonomia ikastera.....	14
<b>MONTSERRATETIK ITZULITA</b> .....	17
Monasterioko liburutegia, aurrena.....	17
80 metroko gelatik 500 metrotako liburutegira .....	19
Aurrekontu apala .....	20
<b>DOKUMENTUEN PESKIZAN</b> .....	21
Sarea antolatu.....	21
Laguntzaileak .....	22
Bandoa jo.....	25
<b>OSOTASUNA VERSUS ZENTSURA</b> .....	27
Osotasunaren obsesioa .....	27
Zentsuratik at.....	27

SUSMOPEAN,.....	29
Poliziaren beldur,.....	29
Amesgaiztoa ,.....	29
“LAZKAOKO” ARTXIBATEGIA,.....	33
ERAKUNDEEN JARRERA ,.....	34
“NUNC DIMITTIS” ,.....	36
INKUNABLETIK INTERNETERA,.....	45
Monastegiko biblioteka,.....	45
Euskal biblioteka,.....	46
Euskal hemeroteka,.....	48
Bildumak,.....	51
Artxiboak ,.....	54
Pegatinak, kartelak eta beste ,.....	55
ZER EGIN AURRERANTZEAN ,.....	59
<b>OSAGAIAK</b>	
<i>Santa Teresa Monastegia</i> ,.....	13
<i>Erakusketak</i> ,.....	18
<i>Gaintza</i> ,.....	23
<i>Muga beti muga</i> ,.....	24
<i>Le Vert eta Garzón</i> ,.....	31
<i>Sariak</i> ,.....	32
<i>Dokumentazio-gunea</i> ,.....	37

## ATARIKOA

Lazkaoko Beneditarren Fundazioa jada burutua eta inauguratua izan da. Bere helburua zera da: Lazkaoko Beneditarrek euskal gaien inguruan osatutako bildumak eta jasotako artxiboak aberastu, ezagutzera eman eta ikerketarako tresna moderno bihurtzea. Fundazioa osatzen duten kideak honako hauek dira, gaur-gaurkoz: Gipuzkoako Foru Aldundia, Lazkaoko Udala eta Lazkaoko Beneditarrek.

Lazkaoko Beneditarrek bildutako funtsek badute bere historia eta filosofia punttua, hori guztia ez baita bat-batean eta hutsetik sortzen. Aita Juan Jose Agirre da Beneditarren Fundazioak bere ardurapean hartu dituen funtsak biltzeko aitzin ideia edo «inspirazioa» izan zuen fraidea. Berak aitortzen duenez, inspirazio hori, Montserrateko monasterioan izan zuen 70eko hamarkadaren hasieran, bertako liburutegia eta artxibo handi-aberatsa ezagutu zituenean, eta Catalunyaari buruz ateratzen zen guztia jasotzen zutela ikustean. Halako argi eta kezka bat sortu omen zitzaion: «eta Lazkaoko monasterioan horrelako zerbait egingo bagenu? Monastegiko biblioteka osatzeaz gainera, Euskal gaien buruzko liburuak, aldizkariak, material mota ezberdinak... bilduko banitu?».

Eta hala hasi zen euskal liburuak eta aldizkariak biltzen, aurretik monastegian A. Basile Joannateguyk, Lazkaon 1921ean hil zen Belokeko monjeak euskal liburu zaharren inguruan abiarazitako lana jarraituz.

Aipatzekoa da Juan Jose honekin guztiarekin hasi zenean, frankismoaren garaia zela, eta liburu eta aldizkariak aparte, beste material mota asko agertzen zela plaza eta kaleetan, horietako asko klandestinoak; eta askoz gehiago ondorengo urteetan, demokrazia-edo iritsi zitzaigunean: paskinak, kartelak, pegatinak.... denak salaketa politiko eta sozialez beteak. Jende askoren iritzian, material honek ez zuen baliorik artxibo baterako; kalean bukatzen zen material guzti horien egitekoa eta bere destinoa zakarrontzia zen. Baina izan da, zorionez, gure herrian, material guzti horren interes artxibistikoaz jabetu denik, horien artean bat, Aita Juan Jose Agirre. Milaka paper ezberdinak eta urte askotakoak izan dira bilduak, eta dokumentu historiko interesgarri bilakatu dira, gure herriaren historia-zati handi bat ikertzeko eta ezagutzeko.

Biblioteka eta artxibo on bat osatzeak denbora asko, ahalegin iraunkorra eta «beneditar pazientzia» eskatzen zituena. Eta dohain horiek bazituen Aita Juan Josek, eta esfortzu hori egiteko prest zegoen gainera. Baina hori, beharrezko izanik ere, ez zen nahikoa. Proiektu hori aurrera eramateko, Aita Juan Josek behar-beharrezkoa zuen elkartearen oniritzia, baimena, sostengua eta zenbait laguntza. Hori guztia bere elkartearen aurkitu du. Eta denbora? Denbora, berak aurkitu du, komentatu bizitzako eginkizunak ongi bete ondoren, gelditzen diren tartetxoak ondo aprobetxatuz.

Amaitzeko, lerro batzuk, bederen, Beneditarren Fundazioaren zergatia eta eragin duen filosofia azaltzeko. Egia esateko, beharrak eta erantzukizunak bultzatu du Lazkaoko Beneditar elkarte hau Gipuzkoako Aldundiarekin eta Lazkaoko Udalarekin Fundazioa sortzera. Egoera aldatzen ez bada behintzat, eta ez dago aldatzeko sintomarik, beneditar elkarte honen bizi-esperantza ez da oso luzea.

Horregatik, azken fraideak komentuko atea giltzaz itxi eta beste nonbaiterako bidea hartu baino lehen, eta bildutako liburu eta paperen destinoa Ordenako goiko instantzien eskuetan utzi baino lehen, nahi izan dugu gauzak guk geuk behar bezala bideratuta uztea. Beneditar elkarte hau, bizirik dirauen bitartean, Fundazioko kide izango da eta bertan kokatua dagoen ondarearen ardura eta erantzukizun parte bere gain izango du. Gipuzkoako Aldundiarekin

eta Lazkaoko Udalarekin hartutako akordioaren arabera, funtsak Gipuzkoa erkidegoan egongo dira beti, konkretuki Lazkaoko udalerrian. Gauzak horrela erabakiz eta eginez, zera nahi izan dugu, herritik jasotako ondare preziatu hau, herriari itzultzea, euskaldun guztien eta geure kulturaren interesa duten guztien zerbitzura egon dadin.

Azken hitz bezala, eskerrak ematea dagokit. Lehenik eta behin eskertu nahi ditut artxibo ondare hau hornitzeko eta aberasteko materiala biltzen eta Lazkaora bidaltzen aritu izan diren eta gaur ere diharduten hainbeste lankide zintzoak. Baita artxiboko lanak egiteko diru-laguntzak lortzen lagundu digutenak ere. Esker berezia Gipuzkoako Foru Aldundiari agertu duen interesagatik eta, batez ere, egin duen esfortzu ekonomiko handiagatik; orobat Lazkaoko Udalari. Eta nola ez, Lazkaoko Beneditarren Fundaziorako liburu hau idatzi duen Joan Mari Torrealdairi. Esker mila guztioi!

Rufino Mujika

Lazkaoko Beneditarren Fundazioko Lehendakaria

## HITZAURREA

Liburutto honek istorioz beteriko historia bat kontatzen du. Juan Jose Agirreren historia eta Lazkaoko beneditarren dokumentazio-gunearen historia. Historia bat eta bera da, azken batean.

Lazkaoko dokumentazio-gunea, gordailua, funtsa, Juan Josek pertsonalki sortu eta garatu du, berari zor zaio ideia, berea izan zen erabakimena, bereak izan dira ahalegina, grina, lana eta nekea. Dokumentazio-gune hau Juan Joserren Artxiboa dela esan daiteke, adiera zabalean bederen.

Juan Jose Agirre 80 urteko monje beneditarra da. Kopuru berbereko bi alditan banatzen da Juan Joserren bizitza, berrogei urte zituenean murgildu baitzen argitalpenen unibertsoan. Lehen berrogei urteak ere aipatzen dira liburuan, baina arin.

Bigarren berrogeialdia da liburu honetan agertzen dena, nola "konbertitzen" den Montserratren, nola hasten den Lazkaon liburuzain eta artxibozain lanetan jo eta ke, nola antolatzen duen dokumentu-bilketa, nola gaintitzen dituen traba eta zailtasunak oro, nola laguntzen dion ikertzaileari.

Kontua da gaur egun Juan Josek Lazkao dokumentazio-guneen mapan kokatu duela, Euskal Herriaren historia soziopolitiko modernoa idatzi nahi duen inork ezin duela Lazkao bazter utzi.

Erreferentziazko dokumentazio-gunea da Lazkaokoa, aipatua eta aupatua, hainbat gaitan onena, eta beste hainbatetan onenaz gainera bakarra.

Pozik eta zoriontsu egoteko motibo ugari ditu Juan Josek, bizi delarik ari baita jasotzen ereindakoaren uzta. Poz nagusia, noski, zera da berarentzat, komunitate ikertzaile eta zientifikoaren onarpena. Horren frogak ugari ditu. Proiektu bati bere bizitza eskaini dion batentzat, ordea, ez da gutxiestekoa egitasmo horren etorkizuna bermaturik ikustea. Eta horixe da Juan Joserren kasua: Fundazioaren bidez, eraikinaren bidez, lantalde bati esker, Juan Josek badaki orain berak sortu eta landu duen artxiboa ez dela berarekin batera desagertuko; are, ez dela museo hila bilakatuko, baizik eta dokumentazio-gune bizia izango dela gero ere.

Hala Euskal Herriak nola komunitate zientifikoak gauza asko eskertu behar dizkiote Juan Jose Agirreri. Hasteko eta behin: garai ilunetan erakutsi duen adorea, kemena, tinkotasuna, mehatxu, beldur eta zentsuren gainetik dokumentuak bilduz jarraitu baitu.

Gero, ikertzailearen zerbitzura lan egin izana beti, zentsurarik gabe, euskal gaia aztertu nahi duenari lana errazte aldera artxibategia guztiz irekita mantenduz.

Eta azkenik eta batez ere, aitzindari izana eskertu behar diogula esango nuke.

Aitzindari, izaera suntsikorreko dokumentuak biltzen: hala nola, panfletoak, esku-paperak, kartelak... material galkorra izaki, ateratzen den unean biltzen ez bada betirako galtzen dena baita. Are eta handiagoa da horren meritua, ez gizarteak, ez artxiboetako kideek aintzat hartzen ez zituzten garaian.

Aitzindari, dokumentu klandestino eta ilegalak biltzen, arriskuak arrisku.

Aitzindari, halaber, diasporako argitalpenak gurera ekartzen, mugaz gaindi.

Juan Josek asko errepikatzen du bere artxibategia ez dela museo hila, artxibategi bizia baizik. Dokumentazio-gunearen bizitzan, Fundazioarekin, bigarren aldi bat abiatzen dela esango nuke. Horren aurreko aldia biltzen du liburutto

honek, sortzaileari lotua, zilbor-hestea ebaki aurrekoa. Aurrerantzean, Fundazioaren baitan, dokumentazio-gunea bera izango da protagonista bakarra.

Esan dut arestian istorioz hornituriko historia kontatzen dela liburutto honetan. Istorioak, anekdotak, gertakariak kontatuz azaldu nahi izan dut Juan Joseren ibilbidea. Ez ditut nik asmatu. Berak kontatu zizkidan zortzi ordutik gorako elkarrizketa batean. Gehienak bere ahoan jarri ditut, nahiz eta nire erara birmoldatu, baina, ustez, bere ikusmoldeari leial. Irristadarik bada, neurea da errua.

Hitzaurretxo hau itxi aurretik, bihotzez eskertu nahi ditut, hasteko eta behin Juan Jose bera, eman didan informazioagatik baino ere gehiago egin didan konfiantzagatik; Miren Barandiaran, eskaini didan laguntza handi eta prestuagatik; Fundazioa, lan hau egiteko aukera ematearren. Mila esker.

Joan Mari Torrealdei



## ALEGIATIK LAZKAORA

### Alegia

Alegian jaioa naiz 1930ean. Hamaika anai-arreben artean bigarrena naiz.

Ama, bederatzi senideren artean gazteena, Ataungo Aian jaio zen eta bederatzi urterekin anaia zaharrenaren arrimuan Altzoko Borda baserrira aldatu zen. Bederatzietatik lau beneditar sartu ziren.

Aita ere ez da alegiarra jaiotzez. Idiazabalen jaio, CAFen lan eginaldi batez eta gustukoa ez zuela-eta Tolosa aldera etorri zen, baserri batera apopilo. Garai hartan jende asko egon ohi zen apopilo baserrietan.

Gerra bera eta gerra ondorengo giroa ezagutu nituen. Oroitzen naiz "narrak" nola sartu ziren Altzotik barrena. Beldurra zen gure etxean, ordurako sei ginen, gerra zen, aita lanik gabe geratu zen eta amaren baserrira joan ginen Altzora. Batzuetan kalean eta beste batzuetan baserrian egoten ginen.

Eskola bakarra zen eta maisua ere bakarra. Maisuak ez zekien euskaraz eta guk erdaraz gutxiago. Eta oroitzen naiz justu idazten nola hasi nintzen, eskolako mutil handienak idazten erakusteko eskua nola hartzen zigun, lapitza eta eskua gora eta behera ibilita kaligrafia eginez.

“Alegian jaioa naiz 1930ean. Hamaika anai-arreben artean bigarrena naiz.”



Meza berriko argazkia familiarekin (1955). Bigarren ilaran ezkerretik bosgarrena da Juan Jose; eta ilara bereko bigarrena, Joxemiel Barandiaran

Guk gehiago ikastea nahi zuen gure amak eta "partikularra" joan ginen, eskolaz aparte.

Akolito ere ibiltzen nintzen elizan, azken hiru urteetan. Bost edo sei baginen. Herrira bokazio bila etorri ohi ziren orduan Arantzazukoak, kaputxinoak, jesuitak eta beste batzuk. Arantzazukoa etorri zen batean denok baiezkoa eman genuen, Arantzazura joateko prest geundela. 1942 urtea izango zen. Handik hiruzpalau hilabetera bueltatu zenean, serio hitz egitera eta eguna-eta finkatzera, ezezkoa eman genion. Neuk esan nion ezezkoa aurrena, joatekotan Lazkaora joango nintzela, osabak-eta beneditar nituela eta. Lagunek gauza bera esan zuten. Eta hala, 1943ko abuztuaren 13an Alegiatik Lazkaora lau mutiko etorri ginen, laurok batera, bina anaia. Nire anaia ni baino hiru urte gazteagoa zen.



Belokeko monasterioa

## Lazkao eta Beloke

Lazkaora etorri eta normala zen bidea egin nuen: "humanidades", nobiziatua, filosofia eta teologia.

Apaiz karrera osoa Lazkaon egiten zen, baina bitxikeria bat gertatu zen tartean. Teologiako azken urtea Beloken egin nuen, zergatik eta organo-jotzaile bat behar zutelako han. Nik sei urte piano egina nuen eta bi urte organo Aita Antonio Azkuerekin, Jose Manuel Azkue organista famatuaren anaiarekin.

Esan behar da Belokek eta Lazkaok harreman berezi-berezia dutela hasieratik. Beloken fundazioa da Lazkao, 1943an beregaina bihurtua, hori bai. Lazkaon, horregatik, formazio frantsesa genuen. Lekaide zaharrek beren artean frantsesa egiten zuten, ez euskara, ez espainiera. Bitxia da gero nire osaba Alberto bezalako Ataungo seme bat Lazkaon frantsesez aritzea! Guk geuk ez genuen frantsesa egiten, baina teologia eta dena frantsesez ikasi genuen.

1955ean apaiztu nintzen, Baionan.

Lazkaoko monasterioa



## IKASTETXEA

### Irakasle eta arduradun

Ni gustura nengoen Beloken, nire premia zuten, eta uste nuen bertan geldituko nintzela. Baina Aita Antonio zen Lazkaoko zuzendari, eta bertora itzultzeko agindu zidan. Beditarren seminarioa zegoen Lazkaon eta erabaki zuten horiez gain "kanpoko" ikasleak hartu behar zirela, Goierriko kultur maila pixka bat jaso behar zela eta. Goierri batxilergo eskola gabe zegoen, eta gure ikasleekin batera ikas zezaketen Lazkaon. Kanpoko ikasleei pixka bat kobratuz, diru pixka bat etxerako ere ondo etorriko zitzaigun, beneditarrok autonomoak baikara, esan nahi baita, komunitate bakoitza moldatu behar dela bizitza aurrera ateratzeko. Irakasleak, horregatik, barrukoak izango ginen denak.

Batere esperientziarik gabe hasi ginen. Geure burua behartu genuen hainbat asignatura ikastera. Horrezaz gainera, "bijilante" ere banintzen, alegia, ikasleen arduradun.

Hogeita hamar bat seminarista ziren, eta hiru aldiz gehiago kanpokoak, 90 bat bai. Eskola batera izan ohi zuten eta gainerako guztia talde bakoitzak bere aldetik.

Nik lan handia egin nuen ikastetxean hamalau urtez. Azken bost urteetan zuzendaria izan nintzen. Kanpokoen "bijilante" izan nintzen eta kanpoko zein barrukoen arduradun akademiko. Eta seguru esango nuke, harrokeriarik gabe, ni izan ez banintz ez zela batxilergorik emango: asignatura pila bat hartu nuen nire gain. Lan-dohain handia dut, orduak eta orduak pasatzen nituen lanean, gero bibliotekan bezala, gustatu egiten zitzaidan, ni ekintzari emana izan naiz denean. Hainbat eta hainbat gaitan autodidakta izan naiz.

### Itxiera

1968/1969 ikasturtean itxi zen Lazkaoko ikastetxea. Irakasle gutxi zen, eta gogo gutxiago. Kontzilio ondoko gogoetatan ikusi zen irakaskuntza ez zela beneditarren egiteko behinenekoa. Eta batez ere, Goierri baten institutu berri bat, Beasainen. Hori guztia kontuan, ikastetxea ixtea erabaki genuen: seminaristei Arantzazu eta Donostiako seminarioa proposatu zitzaien. Eta Lazkaoko eta Goierriko mutikoez hor zuten Beasaingo Institutua.

“**Hamalau urtez lan handia egin nuen ikastetxean. Azken bost urteetan zuzendari izan nintzen.**”

## SANTA TERESA MONASTEGIA

---

Ehun urtetik gora daramate beneditarrek Lazkaon bizitzen.

Ez dira, ordea, etxe honetan bizi diren lehen erlijiosoak. Beneditarren aurretik etxe berean karmeldarrak bizi ziren, harik eta Mendizabalen Desamortizazioa delakoak kanpora bidali zituen arte, 1836an.

Komentu hau 1641ean eraikia da, karmeldar oinutsentzat.

Urte batzuk beranduago, 68 urtera, beste gobernu batek, kasu honetan frantsesak, Beloketik kanpo beneditarrek bota ondoren, 1903an etorri ziren Idiazabalera eta 1906an hartu zuten Lazkaoko Santa Teresa komentua.

Egoerak bere onera etorri zirenean, Beloke eta Lazkao bat ziren, 1943an banandu ziren arte, komunitate bakoitza beregaina izateko bazela nor iritzita.

Ez karmeldarrak bere garaian, ez beneditarrek orain dira etxeko nagusi. Eraikina eta lurrak, biak dira Infantadoko Dukearenak.



Lazkaoko komunitate beneditarren bi une:  
goikoa, 1960koa; eta behekoa, 2011koa



## LAN ALDAKETA

“**Nik neuk gogoz medikuntza ikasiko nuen.**”

### Medikuntza ikasi nahi

Irakasle gehienak etxeakoak ginenez, bat-batean lanik gabe geratu ginen. Zer bide hartu? Hogeiren bat apaiz izango ginen ordurako, batzuk zaharrak. Gure arteko kapitulu edo biltzar nagusian batzuk eskulana aukeratu zuten, baratz, koadernaketa... Inprenta txiki bat ere bagenuen ordurako, aldizkari txikiak egiteko gauza zena. Musika idazteko makina bat ere erosi genuen, liturgia lanak bertan egiteko. Beste batzuk itzulpen lanak hartu zituzten.

Oroitzen naiz bilera horretan Rufinok (Rufino Mujika gaurko nagusiak) esan zuela bibliotekak arreta berezia behar zuela, beste monasterioetan sekulako garrantzia duela, gurean ez bezala. Norbaitek arduratu beharko zuela. Eta Rufino bera ez zela egokia horretarako.

Egia zen bibliotekaren egoera tamalgarria. Lazkaoko monasterioan ez zegoen kultur formazio jasorik. Sortu zuen Beloken ere ez. Izan ere, Beloke sortu zutenak apaiz predikariak izan ziren, misionistak, eta kultura aldetik ez ziren ongi formatuak. Kultur tradizioz ez zen landu monasterio horietan.

Bibliotekaren ardura nik hartuko nuela esan nuen, beste inork ez zuelako nahi eta beste lanik ez nuelako esku artean.

Nik neuk gogoz medikuntza ikasiko nuen, bai, medikuntza. Izan ere, irakasle nintzela, bost urtetan Madrila eta Salamancara uda partean joan ohi ginen zientziak-eta ikastera, gero ikastetxeari titulua eman ahal izateko. Udako bina hilabete horietako ikastaroetan zientzien barruan medizina ere ikasten genuen, eta niri gustatu egiten zitzaidan izugarri, batez ere ikertzaileena, laborategi lana. Gainera, monasterioan erizain izateko ere balioko zidan. Gustatu egiten zitzaidan eta zer edo zer egin nahi nuen, kanpora joan ikasketak egitera, besteek egina zuten bezala. Baina ezezkoa eman zidan Aita Mauro abateak.

“**Egia esan ez nuen asmorik Montserratek itzuli eta bibliotekari lanetan jarduteko.**”

### Bibliotekonomia ikastera

Bibliotekaren ardura hartu nuenean baldintza bat jarri nuen argi eta garbi: urtebetez hemendik kanpora joatea. Kanpora joan nahi nuen, hori zen printzipala. Garbi esan izan dut geroztik, ez nuela asmorik handik etorri eta bibliotekari lanetan jarraitzeko. Kanpora ateratzeko aitzakia izan zen komunitatean inork bere gain hartu nahi ez zuen biblioteka.

Urte sabatikoa nahi nuen, egia esan, nekatuta eta nazkatuta nengoelako. Motibo bat baino gehiagogatik. Medizina ikasi nahi nuen eta ez zidaten utzi,

40 urte nituen eta ez nekien zeri heldu aurrerantzean, nirekin batera Lazkaora etorri zen anaiak monje izatea utzi berria zuen, liburu kontutan ez nekien ezer, ikastetxearen itxierak soka luzea ekarri zuen: arazo administratiboak, mutikoen gurasoekin arazoak. Kontua da nik Lazkaotik irten nahi nuela, lasaitzera eta aire berrien bila. Eta Montserrateko monasterioa aukeratu nuela.

Montserraten urtebete egin nuen segidan, eta hurrengo urteetan ere joan etorrian ibili nintzen. Guztira han pasatutako denbora hiru bat urte izango da.

Montserrateko biblioteka oso biblioteka preziatua da, ederra. Han ikasi nuen liburuak ezagutzen, estimatzen, baloratzen, liburu zaharrak, eta zaharragoak, inkunabileak, gotikoak. Ezagutzen ez nuen mundu batean sartu nintzen. Gainera, Ranbletan dagoen Biblioteca Central de Catalunya maiz joaten nintzen, ikastaroetara-eta. Sarrera ona nuen bertan, zuzendaria Montserraten egondakoa baitzen. Hango areto eta gela gotikoetan asko gozatzen nuen.

Eguberrietan, oporretan Lazkaora etorri nintzenean, gure bibliotekan zer gure jakin nahi nuen. Exajeratu gabe gutxienez zentimetro bat hauts bazuten liburuak, egur estufaren erruz. Orduantxe deskubritu nuen gure biblioteka zein ederra zen, guk ere bagenuela liburu zaharrak, balio handikoak, ederrak. Eta hautsez beteta. 1500. urteko liburuak eta hautsez beteta! Lehenengo droga edo benenoa hauxe izan zen.

Berriz Katalunian, egun batean Aita Marc-ek deitu zidan, eta gela sekretu batera eraman ninduen. Aita Marc izengoitiz "Kanpo harremanak" zen, monasteriotik kanpoko harremanak eramaten zituena. Gela hartan zeuzkan, giltzapean, Kataluniari buruz frankismoan, bai klandestinitatean bai atzerrian, ateratzen ziren liburuak, aldizkariak eta dokumentuak. Berak bakarrik zeukan giltza. Eta esplikatu zidan lagun sare bat bazuela, Katalunian eta atzerrian, informazioa biltzen ziona. Jose Antonio Agirre lehendakariaren paper batzuk ere erakutsi zizkidan. Garai hartan Jose Antonio Agirre guretzat Jainkoaren hurrengoa zen.

Zera pentsatu nuen orduan, horiek hori dena dute, eta guk ezertxo ere ez! Han ikusitakoak ikusita, hantxe deliberatu nuen Euskal Herriari buruzkoa bildu behar nuela. Dena jan behar nuela bueltatu nintzen, "Euskal Herriko historia nik egin behar diat" esanez, orririk txikiak ere biltzeko gogoz. Etxeko paper zaharrak geletan miazteari ekin nion eta horra non aurkitzen dudak *Euzko Deya*, 12. zenbakia. "Honek lagunak badizkik" pentsatu nuen, eta hasi nintzen bila eta bila. Horixe izan zen abiapuntua eta pixkanaka-pixkanaka abanikoa zabalduz joan nintzen, baina huraxe izan zen hasiera.

Euskal Herria ukitzen zuen guztia niretzat zela sartu zitzaidan barruan handik



Juan Jose Montserrateko monasterioan, bibliotekonomia ikastera joanda

“**Montserrateko bibliotekan ikasi nuen liburuak estimatzen, baloratzen. Ezagutzen ez nuen mundu batean murgildu nintzen.**”

“**Euskal Herria ukitzen  
zuen guztia niretzat zela  
sartu zitzaidan barruan  
handik itzultzean.**”

itzuli nintzenez. “Haiek baino gehiago egin behar diat”, esan nion neure buruari. Katalanak gairitu nahian hasi nintzen, eta bai lortu ere. Beraiek aitortu didate hori. Eugene Girald 70eko hamarkadan hasi zen hura ere materialak biltzen, orain Bellaterrako Unibertsitatean dauka CEDOC dokumentazio gunea. Harreman handia dut berarekin, eta mila aldiz esan dit berak baino askoz ere gehiago daukadala.

Hori jakitea, eta halakoei entzutea, poz handia da niretzat, lanean eman ditudan urteek, hilabeteek, igandek eta gauek balio izan dutela, zerbaitetarako izan direla esan nahi baitu horrek.

Montserrateko bibliotekaren gela bat



“**Katalanek baino gehiago  
egin behar diat” esan nion  
neure buruari.**”






## MONTSERRATETIK ITZULITA

### Monasterioko liburutegia, aurrena

Montserratetik bueltan aurkitu nuen lehen arazoa espazioarena zen. Gela txiki bat zen biblioteca, liburuak eta aldizkariak komentuan zehar sakabanaturik zeuden. Obra egin behar zen, monasterioak liburutegi duin bat izan zezan. Nire asmoen berri eman nuen komunitatean, eta handikeriatzat jo zuten bazuek, baina obra egiteko baimena lortu nuen. Arkitekto karrera egin zuen Montserrateko monje bati deitu nion planoak egiteko; astebete pasatu zuen nire esanetara eta jada pronto genituen plana eta planoak. Eraikina goitik behera hustu zen, paretak bakarrik utzita. Hiru solairuko biblioteca lortu genuen, duina, beste monasterioetakoen parekoa.



Lazkaoko monasterioaren bibliotekan zortzi inkunable eta inkunable-osteko asko dago

## ERAKUSKETAK

Orain artekoan sei erakusketa antolatu ditu Juan Josek, liburu zaharraren inguruan gehienak.

1. 1975 (ekainak 30-uztailak 19): Irakaskuntza lanetan zebiltzan mojei euskararen inguruko ikastaroak eman zizkieten monasterioan, Dionisio Amundarainen ardurapean, eta hori aprobeztatuz, liburu zaharren erakusketa egin zuten. Arrakasta handia izan zuen, eta mojez gain, hainbat ikastoletako irakasleak ere etorri ziren erakusketa ikustera.
2. 1986 (apirila): Beasaingo Institutuko euskara irakasleek eskatuta egin zen erakusketa, elkarlanean, BUPeko azken urtea eta COU egiten ari ziren ikasleei zuzenduta. XIX. mende erdialdera arteko euskal liburuak, gerra aurreko nobela, erdaraz idatzi zuten euskaltzaleak, liburu “politikoak” eta inkunableak. Inguruko herrietako eta Donostialdeko ikastoletako ikasle eta irakasleak ere etorri ziren.
3. 1988 (apirilak 19-23): Maizpideren inaugurazioan Dionisio Amundarainek eskatuta egin zen. Autoritateak etorri ziren (Ardanza, Mari Karmen Garmendia, Txabarri...), eta herriko jendea ere bai.
4. 1990: Beasaingo Institutuarekin 1986an egin zen erakusketaren antzera.
5. 2003 (urria): Kilometroak jaialdiko antolatzaileek eskatuta. Beasaingo institutuarekin egindako erakusketa berdina izan zen. Astebete inguru egon zen zabalik.
6. 2010 (abendua): dokumentazio-gunearen inaugurazioa. Artxiboko dokumentuak erakutsi ziren eta aldi berean erakusketa-gela berria ere inauguratu egin zen.



Erakusketa-areto berriaren inauguraziokoan (2010, abendua)

Hiru urte eman genituen obratan, 1973-1975 tartean.

Monasteriorako biblioteka duin bat egiteaz gainera, beste asmorik ere banuen buruan. Euskal biblioteka on bat nahi nuen, katalanen antzera, euskaraz eta euskal gaiez idazten zen guztia bilduko zuena. Nire esperantza zen kanpoko jendea etorriko zela biblioteka hori kontsultatzera.

Entzuna nuen Kolonbian bizi zen Francisco Abrisketak sekulako euskal biblioteka zuela, eta Euskal Herrian kokatzea nahi zuela. "Badaezpada ere hemen lekua prestatu behar diat", pentsatu nuen, eta hori hona etor zitekeela pentsatuz egin nuen obra handia. Idatzizko harremana banuen berarekin eta 1974an, Beloken mendeurrena zela eta, egon ginen aurrez aurre, eta bibliotekaren kokapenaz hitz egin genuen. Ez zekien nora ekarri. Eta nik badaezpada lekua egin nion.

Urteak geroago kontuak beste bide batetik joan ziren, baina tira. Liburuak Euskal Herrira etorri ziren, bai, baina ez leku bakar batera: Deustuko Unibertsitateak izan zuen lehentasuna, gero Eusko Legebiltzarrak, gero guk eta gure ondoren Baionako Museoa. Handik bospasei urtera Eusko Legebiltzarrak guri pasatu zigun jaso zuen Abrisketaren artxibo pertsonala.

## 80 metroko gelatik 500 metroko liburutegira

1973ko bibliotekak 81 metro zituen. Eta hiru urte geroago, 525. Lautik bat bete nuen zegoen materialarekin, baina bildumak osotuz joan behar zen, eta liburu zahar eta berri gehiago inguratuz.

Nik hasieratik nituen bi amets: bata, beste monasterioen mailan jartzea biblioteka; eta bestea, euskal biblioteka taxuzko bat antolatzea. Gipuzkoan ez zegoen biblioteka publikorik euskal gaietan bereziturik, Diputazio barruko Julio Urkixo kenduta. Komentuetako liburutegi pribatuetara jo behar zen horretarako. Gurea izan zitekeen alternatiba, irekia.

Euskal gaiaz ateratzen zen guzti-guztia bilduz egin nahi nuen ikertzaileentzat biblioteka. Zaletuak eta ikertzaileak hona etortzea lortu nahi nuen. Gutxi batzuk agertzen ziren orduan, Karlos Santamaria horien artean. Baina fama hasi zen kurritzen, Ameriketako euskal liburuak genituela, adibidez, Ekin editorialekoak, edo *Eusko Deia* lortu genuela. Ameriketako materialak Beloken bidez eskuratu ohi genituen, betiere muga pasatzea arazo bazen ere.

Monasterioak bazituen euskal liburuak eta horiez gainera Beloketik ekarriak ere bai, eta beste asko nik neuk lortu ditut han eta hemen, apaiz etxeetan eta parroketan ibilita.



Biblioteka-gela

“Euskal gaiaz ateratzen zen guzti-guztia bilduz egin nahi nuen ikertzaileentzat biblioteka.



Euskal Biblioteka



Monasterioko Biblioteka

“**Nik sartu ditudan orduak kontaezinak dira, egunean batezbesteko hamabi bai.**”

## Aurrekontu apala

Erakundeetako liburutegiekin alderatuta, guk aurrekontu txikia genuen. Komunitateak eskuzabal jokatu du beti, hori bai, urtero-urtero kopuru jakin bat bibliotekan inbertituz. Diru hori euskal liburu eta aldizkarietarako zen, baina gainerakoentzat ere bai. Premietatik abiatuta ez da diru asko, emailearentzat hala bada ere. Liburutegi bat eratzeko ez da asko, baina gure komunitatearentzat bai, pobrea baita. Gainera pertsona bat eduki du zerbitzu honetan 40 urtez. Holakoetan badakizu: aurrekontuak estaltzen ez duena norberak jarri behar. Nik sartu ditudan orduak kontaezinak dira, egunean batez besteko hamabi bai, asteburuetan ere berdin, makina bat gautan ere bai, eta gero koadernaketa etxean egin dugu, apalategiak geuk maneiatu ditugu, paretak margotu ere bai, garraioa beste hainbeste, dena etxean egin da. Egin beharra ez da inoiz bukatzen. Hogei urte gehiago beharko nituzke.



Monasterioko Biblioteka

## DOKUMENTUEN PESKIZAN

Oroitzen naiz nire gazte denboran aldizkari eta paper klandestinoak nola zabaltzen ziren eskuz esku, arrastorik utzi gabe, paper fin-finean. Irakurri ondoren beste bati pasa, esan ohi zuten. "Non ote daude paper haiek?, ez ote betirako galduak?", pentsatzen nuen.

Ni neu paper bila hasi nintzenean, 70eko hamarkadan, argitalpen suntsikoren urre-garaia zen. Garai bateko kontuak aldatuta zeuden. Lehenago paper berak bide luzea egin ohi zuen eskutik eskura eta auskalo non bukatzen zuen bidea. Baina orain paperak ugari ziren. Apaizek, herrietako taldeek, sortzen ari ziren elkarte politikoek, denek idazten zituzten paperak beren adierazpenekin, beren errebindikapenekin, eta nola edo hala zabaltzen zituzten, errepresioa burlatuz, eskuz esku edo kaleetan, zentsuraren hatzaparrak saihestuz.

### Sarea antolatu

Kataluniatik itzuli nintzenean paper horiek guztiak biltzeko irrika bizia ekarri nuen, jakina denez. Gure historia idazteko paperik xixtrinena ere inportantea zen niretzat, hobe esan, paper xixtrinik ez zegoen. Dena bildu behar zen, historia idatzi ahal izateko. Joxemiel Barandiaran senitartekoa nuen, eta berari entzun nion gure asaba zaharrek zer pentsatzen zuten interpretatu ezinik gabiltzala, eta gaur hori erraza dela idatziari esker. Ikertzaileei interpretazio hori erraztu nahi nien paperak bilduz. Zoritxarrez, idatzitako hori biltzeko kontzientziarik ez dago gure herrian, zabarkeria handia dago, ez dira konturatzen paper mota asko ateratzen diren une berean biltzen ez badira desagertu egiten direla betirako. Tximeletak baino bizialdi laburragoa dute, suntsikorak dira, galkorrak.

Haserretuta ibilia naiz sarri, aitor dut, errebindikapen eta aldarrikapenak direla, jaialdi eta festak direla, agertu izan diren hainbat orri ez dizkidatelako bildu, nik neuk espreski mila aldiz gogorarazi arren. Utzikeria edo zabarkeria handia izan dugu.

Niregana informazio bila etorri diren batzuekin ere mindu naiz, beraien-gana dokumentazioa eskatuz jo izan nuenean ez zidatelako kasu egin eskatzen nuen dokumentazio hori oso eskura edukita, eta gero niregana etorri izan dira laguntza eske, beraiei interesatu izan zaienean.

Nola bildu?

Ikasle izan nituenengana jo nuen aurrena, kanpoan estudiantzen zebiltzan eta eskatu nien harrapatzen zuten guztia ekartzeko. Ezagunengana ere bai.



Sancho el Sabio Fundazioaren inauguraziokoan (1991)



Joxemiel Barandiaranekin liburutegian



Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kideen bisita (2001)



Jose Maria Portellen alargunak, Carmen Torresek, senarraren artxiboa oparitu zuen

“**Gure historia idazteko paperik xixtrinena ere inportantea zen niretzat, hobe esan, paper xixtrinik ez zegoen.**”



Dokumentazio-guneko lankideak eta Gaintza

Neu ere mugitzen nintzen honengana eta harengana. Horretan nenbilela zabaldu zenean tarteka dokumentuak jasotzen hasi nintzen, taldeen edo partikularren eskutik. Horrela hasi zen elur bola handitzen.

## Laguntzaileak

Kasu bitxi bat izan nuen 1977an. Halako batean, uztailean zela oroitzen naiz, gutun-azal misteriotsu bat jaso nuen, dokumentuz beteta. Eta gerora gehiago. Ez zitzaidan parte onekoa iruditu. Polizia zelakoan nengoen. 1980an eza-gutu nuen bidaltzailea. Aurrez aurre orduantxe ezagutu genuen elkar baina aurretiaz gutun bidez bagenuen elkarren berri. Jose Anjel Gaintza zen, abertzale jatorra, nire laguntzailerik handiena. Gaintzak Deustuko San Felicisimo ikastolan esku hartu ohi zuen, sortzaile gisa aurrena eta kulturako batzordean gero. Amatiñori esker jakin zuen paperak biltzen ari nintzela, eta anonimo hasi zen bidaltzen. Bilboko abertzale inportante batekin harremanetan jarri nuen, Karmele Goñirekin hain zuzen ere, eta horrek ate asko ireki zizkion. Orduetik gaur arte paperak inguratzen dihardu. 2004an Euskodok sortu zuen, dokumentazioa biltzeko elkarte, hemengoaz gainera Labayru eta Gasteizko Sancho el Sabio laguntzeko. Baina guk dugu beti lehentasuna. Gaur egun, hamabost artxibotarako ari da lanean.

Biltzaile gehiago ere badut, askoz gehiago, zorionez, beste maila batekoak. Horiek beren inguruko materialak jasotzen dituzte. Finko xamarrak ditut Donostian, Ordizian, Hernanin Arrasaten edo Gasteizen, Laudion, Ondarruan, Iruñan, Lizarran. Iparraldekoa Beloketik barrena jasotzen dut normalean.

Sare horretan modu sistematikoan informazioa jasotzeko konpromisoarekin daude hainbat erakunde edo elkarte ere, esate baterako, EHU, UEU, IVAP, Arartekoa, Foru Aldundiak, zenbait udal, alderdi politiko batzuk, sindikatuak, elkarteak, fundazioak. Kataluniako CEDOCekin ere harreman handia dut, errepikatuak-eta trukatzeko.

Toki askotan eta era askotara ibilia naiz dokumentu eta paper bila. 1980an bi bide inportante landu nituen.

Urte horretan liburutegira etortzen hasi zen Jesus Mari Leizaola lehen-dakari ohia, Martin Ugaldek lagunduta. Hainbeste urtetan *Euzkadi* egunkaria bere eskutan ibilitakoa zen Leizaola eta aspaldi ikusi gabe zeukanez aztertu egin nahi zuen. Okasioaz baliatuta aipatu nion erbesteko Eusko Jaurlaritzak izango zuela dokumentaziorik Parisen eta ea laguntzerik zeukan, *OPE*ko ale batzuk banituela baina. Bai, gordailua edo biltegia han zegoela, enkargatua

## GAINTZA

---

Honelaxe da ezaguna, Gaintza; izenez Luis Angel, deustuarra.

Juan Joserren kolaboratzaile hoberena. “Gaintza da onena” esana du Juan Josek, bera da gehien bildu duena.

Ustekabeen hasi zen Gaintza lan edo zaletasun honetan lanean. Gaintza barku-makinista zen ogibidez baina zaletasunez euskaltzale: txistulari eta San Felicisimo Ikastolako kultur batzordekoa. Halako batean, 1977an, antolatu zuten idazkuntza lehiaketa zela-eta, Amatiño etorri zitzairen erreportaje bat egitera. EGIkoa ere izana zen, eta harira etorri zen nonbait, paper zaharrak bazituela. Amatiñok eman zion Juan Joserren lanaren berri.

Besterik gabe, gutun-azaletan sartu eta Lazkaora dokumentuak bidaltzen hasi zen. Juan Josek ez zuen ezagutzen eta ez zen fio, polizia edo txibatoa ote zen. 1980 arte ez zuten elkar ezagutu.

Hasiera hark ez du bukaerarik izan. Bilduta zeuzkanak bidali ostean berrien bila hasi zen Gaintza. Hobby berria sortu zitzaion. Hobby ala zerbitzu?: “nik uste dut hau dela nik Euskadiri eskain diezaiokean lanik emankorrena”, esana du berak.

Doan egin du beti lan, baina ez kosturik gabe. Bere poltsikotik ordaindu baitu autoa, gasolina, posta-gastu guztiak. 30 urtetan ez da huskeria.

Alderdi, elkarte, talde eta kolektiboen egoitzetara joanez hasi zen, ekoizten zuten dokumentu txikiena ere biltzeko asmoz. Eite guztietako kolektiboak bisitatu ditu, Fuerza Nueva ere bai, behin bakarrik bada ere. Hasierako susmo gaiztoak kenduta, ondo hartzen omen dute egoitza guztietan, baina dokumentazioa bidaltzen ez. Berak joan behar jasotzera. Kexu da alderdiek, taldeek ez dutelako beraiek argitaraturikoa ere gordetzen. Euskal Herriko kolektiboek ez omen dute artxibo-kontzientziarik.

Lazkaorekin soilki hasi zen, eta gaur egun hamabost zentrotara bidaltzen du dokumentazioa. Euskal Herrian daude artxibo gehienak, baina Kataluniara ere bidaltzen du materiala, Renoraino ere bai. Baina lehen eta orain, Lazkao da beti lehena, hori beti.

2004ko maiatzean *Euskodok* elkarteak sortu zuen, Lazkaorentzat gainera Derioko Labayru eta Gasteizko Sancho el Sabio fundazioarentzat lan egiteko asmoz. “Euskal dokumentu eta bibliografi ondarearen zaintzarako elkarteak” da *Euskodok*.

Atez ate ibili denetan ukorik ez omen du izan. Lazkaoko beneditarrentzat eskatzen duelako gertatzen dela hori, uste du Gaintzak. Ez zitekeela gauza bera izango baldin eta Eusko Jaurlaritzaren edo bestelako erakunde publiko baten izenean eskatzera joan izan balitz.



Juan Jose eta Gaintza

## MUGA BETI MUGA

Leizaola lehendakariak Pariseko Singer kalean zegoen Eusko Jaurlaritzako atea ireki zizkion, baina ez Bidasoako mugakoak.

Artxibora etorri ohi zen Leizaola lehendakaria 1980 urtean eta Juan Josek laguntza eskatu zion, desterruko Eusko Jaurlaritzaren babeseko aldizkariak lortzen laguntzeko, alegia. Lazkaotik bertatik deitu zuen Pariserara, eta nahi zuenean joan zedila.

Oporrak hartu eta han doa Juan Jose. Oso ondo hartu omen zuten. Bazkaltzera atera ere egin gabe egon omen zen materiala hartu eta hartu. *OPE*, *Eusko Deia* eta beste argitalpen batzuk aukeratu zituen, ale errepikatuak. Bost kaxa bete zituen. Taxia eskatu, kaxak hartu eta geltokira, eta handik Baionara. Baionan jaitsi eta Beyrisko Villa Izarrara joan zen zuzenean, harik eta muga igarotzea antolatu arte; EAJk eta Gobernuak ere han gorde ohi zuten kanpoko dokumentazioa, Hegoaldera noiz pasatuko.

Juan Josek ere ez zuen ikusten noiz pasatu. Bitartean ale gehiago ere inguratu zituen, denetara 11 kaxa zeuzkan 1982rako. Urtebete eta gehiago utzi baitzuen materiala Beyrisen.

Halako baten animatu zen: 1982 urtea zen, frankismoa eta “arrisku” guztiak atzean utzita ustez, demokrazian noski. Aduanetan lan egiten zuen bat Lazkaora etorri ohi zen, eta lagun egin zuen. Berak lagunduko ziola.

Esan eta egin, badoaz biak, aduanetako arduradunarekin hitz egiten du lagunak, eta baiezkoa lortuta han doaz merkantziaren bila. Iparraldera pasatzearekin batera animatu egin ziren, eta ospatzeko aitzakian bazkaltzen gelditu. Badatoz bueltan, eta, zer gertatuko eta, guardia aldatuta zegoela. Ezetz, ez zutela merkantzia pasatuko. Arduradunak ere ezetz, haranzkoan deklaraturiko lauzpabost kaxa ez zirelako, hamaika baizik, kontrabandoa zela gainera, eta isuna barkatzen bazien ere harik eta Ortega koronelarekin hitz egin arte ez zutela materiala mugituko. Pakete guztiak hantxe bertan deskargatu behar izan zituzten, eta etxera. Ia-ia ziplo bertan erori zela, dio Juan Josek. Zortzi egunen buruan lortu zituzten eskuratzea, zorte handiz. “Zortzi egun txarrak pasatu nituen, oso txarrak”, dio Juan Josek, “gaeuz amesgaiztoak izaten nituen”.

Juan Jose gogoratzen da kaxako paperak hartu eta nola esan zion guardia zibil batek nagusiari: “Jefe, aquí pone Eu(s)kadi”, eta nola erantzun zion arduradunak: “Eso ya no es delito”. 1982an.

Anekdotatik harago doa Bidasoako mugak eragin duen traba. Frankismo osoan bitan banatu du komunikazioa. Francoren zentsurapean atera ezin ziren argitalpen asko, diasporan edo Iparraldeko aterbean ikusi ohi zuten argia. Argitaratu ondokoa zen zailtasuna: muga nola pasa? Juan Jose Agirrek etengabe egin zuen topo mugarekin. Jakina da lehena edo lehenengoetakoa izan zela Juan Jose esiliatuen lanen peskizan, eta material horiek zeukaten zailtasunik handiena muga. Nola gainditu? Belokez eta Iparraldean zituen familia lagun batzuetaz baliatu izan da horretarako.

Bidasoako muga hesi gaindiezina izan da hainbat argitalpenentzat





Basurde deitzen dena zela. Eta bertoko telefonoa hartu eta neure aurrean deitu zion gordailuzainari bikoiztuak-eta emateko eskatuz. Hura poza nirea!

Urte berean, Antonio Azkue eta biok Piarres Lartzabalengana joan ginen Lapurdiko Sokoara. Hango parrokoa zen, "ETAren kapelau" deitzen zioten, errefuxiatuen aldeko Anai-arteak euskal elkargoko kudeatzaileetakoa ere bazen. Poz handienetakoa bidaiak horrek eman zidan. Lartzabalen bidez lortu nuen *Enbata*, Mrekin (Embata), hasierakoa. Anai-arteakoa ere bai. Eta gehiago. Galdetu nion ea ETakoek-eta ez ote zeukaten materialik gordeta. "Hitz egingo dut", esan zidan. Halako batean berriz joateko, eta argitu zidan: "Peixotorekin egon naiz eta esan dit koba baten zaku handi bat beteta daukala eta emateko prest daudela". Eskuratu aurretik, ordea, atentatua izan zuen Peixotok. Zaku hura non gelditu da? Lastima, pena eman zidan.


### **Bandoa jo**

Garai batean hemen zabaltzen ziren aldizkari eta dokumentu klandestinoak diasporan sortuak ziren gehienak. Nik beti pentsatu izan dut horiek biltzea sekulako altxorra litzatekeela Euskal Herriarentzat eta kulturarako. Horiek denak nola bildu ametsetan izaten nintzen, pozik egingo nukeela bidaiak Ameriketara eta Euskal Etxe guztiak banan-banan bisitatu eta dena bildu. Dirurik ez, ordea.

Hala, burura etorri zitzaidan Sabino Azkueren izena, beneditar kidea, laguna, Caracasen bizi zena. Orain Arraten dago apaiz. Oporretara etorri zen batean azaldu nion nire asmoa, diasporan atera zen guztia bildu nahiko nukeela gure historia egiteko. Gogotsu hartu zuen asmoa. Euskal Etxeekin harremanetan jarri zen, eta izugarritzko arrakasta. Asmoaren berri irratiz eta prentsa bidez eman zuen, materialak bidaltzeko eskaria eginez. Bandoa jo zuela esaten dut nik. Beloken bidez egiten genuen garraioa eta ordainketa, hemen frankismoa baitzegoen. Diasporatik lorturiko aldizkarien artean altxorretan altxorrena *Tierra Vasca* izango da, ANVrena, Tellagorrik atera zuena, 21 urtez. Ekin argitaletzeko argitalpenak ere osorik dauzkat.



Dokumentuak komentuko txoko askotan pilatuta zeuden



“Diasporan atera zen guztia bildu nahi nuen historia egiteko.”

# ZENTSURA

Bibliotekak, Lazkaoko bibliotekak, zentsuraren atzaparkadaren markak ditu. Inkisizioak bere garaian, Munillaren aurreko apezpikuek gero, eta Francoren morroiek urte luzetan eragindako zentsura agertzen da liburu eta aldizkarietan.

Dokumentazio-gunea ez dago zentsuratik aparte. Zentsura, adiera zabalean hartuta, modu askotara dago presente artxiboan. Debekuen markak daude, baina ez da hori modu bakarra. Artxiboan bildu den materiala, neurri on batean, agintearen neurri zentsuratzailei aurre egiteko ahaleginaren emaitza da. Askatasunik ez zegoelako, demokraziarik ez zegoelako, arriskua bizirik zegoelako, jo da askotan argitalpen klandestino horietara.

Bestalde, beldurra solte ibili da euskal herrietan. Beldurrak automatikoki autozentsura dakar, edota paper konprometitua sutara botatzea. Juan Josek bildu dituen testigantza batzuei esker badakigu Tejeroren kolpekoan dokumentu asko erre egin zirela, zer gerta ere. Tejerok bitan banatu zuela artxiboan salatu izan du Juan Josek.

Juan Joseri berari eskertu behar zaio, arriskuak arrisku, ez kokildu izana, biltzen jarraitzeko adorea eta ausardia mantendu izana traba guztien gainetik.

Zentsuraren marka batzuk agertuko ditugu hemen, Elizak egindakoak inkisizio garaian eta berrikitan, agente frankistak egindakoak. Zentsura kontutan Ezpata eta Gurutzeta zein lotuta joan diren!



Inkisizioaren espurgua ezkerrean. Eta eskuinean, gotzainak debekaturiko hainbat testu idatzi zituen idazmakina



## OSOTASUNA VERSUS ZENTSURA

### Osotasunaren obsesioa

Nire obsesio handiena hori izan da, ahalik eta gehiena jaso, guztia, azterketa soziologikoak-eta egiteko. Gertakarien historia ikertzaileak aztertu behar du, eta horrek ahalik eta material gehiena behar du garai bateko momentu bakoitzean zer gertatu den jakiteko. Hori gabe ez dago historia taxuz egiterik.

Horregatik diot ehuneko ehun izatea, hori dela niretzat pozgarriena. Nire helburua osotasuna da. Pusketa batekin lan egin daiteke, baina...

Osotasunaren obsesio horrek eraman nau paper txiki baten atzetik luze ibiltzera, edo aldizkari bilduma bat osotze aldera inkulso fotokopia egitera, nahiz eta jakin kritikak jaso nitzakeela horregatik.

Artxiboa bisitatzera etorri ohi direnei esaten diet herri bakoitzean gertatua ehuneko ehun egunero bilduko balitz, herri horren historia osoa hortxe legokeela, panfleto, orri solte eta holakoak.


### Zentsuratik at

Zuri gustatu ala ez, zure balioen aurka egonik ere, artxibozain nahiz liburuzain batek dena bildu behar du, biharko soziologoek aztertuko baitute historia-ren bidea eta partaide bakoitzaren arrazoia. Adibidez, gaur egun ilegalak diren hainbat elkarteren materialak ditut nik hemen. Altxorra dira niretzat. Orain kondentatua daude. Baina niri ez dagokit erabakitzea Txindokira joateko zein den bide egokiena, Amezketatik barrena doana, Ataundik barrena edo nondik.

Biltzen ditudan materialetan egon daiteke nire printzipioen kontrakorik, egon badago, hilketak eta Elizaren aurkako kontuak esaterako, baina nik bildu egin behar dut, gustatu ala ez gustatu. Nik ez dut zentsurarik egiten.

Batek baino gehiagok esan dit biltzen dudan informazioa ez dela monje batek biltzeko egokia. Oroitzen naiz ongi gomendatuta nola etorri zen Valladolideko gizonetako bat, infiltratua inondik ere, nik esaten nuen guztia isilka grabatzen harrapatu bainuen, eta horrek aurpegiratu zidan nik biltzen nuen dokumentazioa ez dela monje bati dagokiona. Holakoetan esan ohi dut artxiboko %70 nire pentsaeraren aurkakoa izanik ere historia idazteko ikertzaileek beharko dutela.

2005ean Garzonen baimenarekin guardia zibilak miaketarako sartu zirenean, *Zutabe* aldizkariak interesatu ziren. Banuela esan nien baina zoritxarrez ez osorik. Adierazi nien, horiei ere, nahiz eta inkomunikatuta nengoen, artxi-



Lur argitaletxeko liburu honen ale bakarra Lazkaoko Bibliotekan dago, Enrike Villarrek lekuko gisa entregatua. Gainerako guztiak Claveria Donostiako delegatuak bildu eta desegin zituen (1972)

“Nire helburua osotasuna da.

“Biltzen ditudan materialetan badago nire printzipioen kontrakorrik, baina nik bildu egin behar dut, gustatu ala ez. Nik ez dut zentsurarik egiten.

“Niretzako meritua dena, poliziarentzat delitua zen.

bozain baten egitekoa errealitatea islatzea dela, errealitatea bere osotasunean gordetzea, gustatzen ez zaigun dokumentua erre gabe. Bisita berean guardia zibiletako batek oihu egin zion nagusiari: “Jefe, tiene el *Egin* completo”. Bizibizi erantzun nion *Egin* eta bete asko neuzkala oso-osorik, eta horixe zela nire egitekoa. Niretzako meritua dena, haientzat delitua zen!



Bi liburu "madarikatu": *Judaismo* (1931) eta *Gazteak garbik izan* (1930)



## SUSMOPEAN

Paper madarikatua biltzen hasi aurretik ere susmopean zeukaten hainbatek Lazkaoko beneditarren monasterioa. Ingurune eta komunikabide batzuentzat fama txarra izan du, aspalditik izan ere.

### Poliziaren beldur

Garzonek bidali zituenak artxibategia miatzera sartu ziren, bai, baina poliziek aurretik ere ezagutzen zuten etxea, bi aldiz sartuak baitziren, 1968an eta 1973an. Lazkaoko beneditarrek jarrera solidarioa eta konprometitua izan dute Euskal Herriarekin, euskal kulturarekin, euskararekin, hori da kontua. Eskola genuen garaian ere "kantu separatistak" erakusten nituela-eta salakuntza izan nuen.

Aurretik genuen "fama txarrari" nire lanak ez zion asko lagunduko.

Artxiborako bildu ohi nuen materialak ez zituen susmoak gutxitu, noski. Beti izan naiz poliziaren beldur. 1973an, salbuespen egoera jarri eta bisitatu zuten lehen komentua gurea izan zen, zortzi orduko erregistroa egin zuten, eta beldur ginen erregistroan poliziak berak ez ote zuen paper konprometituren bat sartuko.

Tejerok kolpea jo zuenean, Donostian nengoen; lehenbailehen itzuli nintzen, gelatik kanpo lo egiteko asmoa hartu nuen baina azkenean neure gelan gelditu nintzen, begirik itxi gabe, hori bai.

*Egunkariak*oa gertatu zenean, 2003ko otsailean, Arantzazura eta Lazkaora zetozen abisua jaso genuen. Gau osoa pasatu genuen bi lagunek dokumentuak apartatzen, eta dokumentu inportanteenak baserri batera atera genituen.

2005eko erregistroa ere dar-dar batean pasatu nuen bibliotekan zehar ibili ondoren artxibora sartu zirenean.

### Amesgaiztoa

Bisitari guzti-guztiekin ez naiz fio, batzuekin mesfidatia izan naiz, nola jantzen diren, eskuak non dauzkaten, leihotik kale aldera begiratzen duten... horri jartzen diot arreta. Bi gizonezko ezezagunekin ez nintzen ausartzen. Kezkak eta beldurrak nituen.

“Lazkaoko beneditarrek jarrera solidarioa eta konprometitua izan dute Euskal Herriarekin, euskal kulturarekin, euskararekin.



Juan Jose artxiboko kartel bat eskutan

“Artxiborako bildu ohi nuen materialak ez zituen susmoak gutxitu, noski.

“ Dokumentuetako asko gordetzea delitutzat hartu izan denean, beldurra sartu izan zait hezurretaraino.

Gordailuan biltzen den hainbat dokumentu



Suarekin jokatu dudala iruditzen zait. Dokumentu horietako asko gordetzea delitutzat hartu izan denean, beldurra sartu izan zait hezurretaraino.

“ Boladatan, eta oraindik noizean behin, amesgaiztoak izaten ditut. Guardia zibilek Beasainera eramaten nautela eta ni leihotik alde egin nahian...

Boladatan, eta oraindik noizean behin, amesgaiztoak izaten ditut. Guardia zibilek Beasainera eramaten nautela eta ni leihotik alde egin nahian... hori da nire amesgaiztoa, hainbat aldiz errepikatua.

Orain lasaiago nago, egia esan. Jada izena hartua du Lazkaok, ezaguna da eta fama du. Eraikin berriarekin dokumentazio-gune formal da orain, ez monje baten kapritxoa. Gainera fundazio baten esku dago. Instituzionalizatzeko horrek ere lasaitu nau.

“ Eraikin berriarekin eta Fundazioarekin lasaiago nago orain.

Huskeria ematen du baina asko lasaitu ninduen Garzonen operazio hartan etorri zen polizia frantsesaren jarrerak. Jakina da operatibo hura Le Vert frantses epailearen eta Garzon espainiarraren artean hitzartua zela. Guardia zibilekin batera frantses bat etorri zen, nik esaten nuena Marcel Etxehandi Belokeko monjeak esaten zuenarekin alderatu eta kontrastatzeko edo. Dena ikusi zuenean, aparte batean, zorionak eman zizkidan hori guzti hori bilduta edukitzearren. Ez dakizu zenbat lasaitu ninduen horrek.

## LE VERT ETA GARZON

Aspaldi hartan superheroiak ezagutu genituen. Heldutasunera iritsi behar izan du Juan Josek superepaileak ezagutzeko. Horietakoak dira Le Vert Frantzian eta Garzon Espainian, eta biak gure lurraldeetan.

Aspaldiko partez Beloke eta Lazkao “anitu” egin dituzte. Izan ere, aldi bereko ikerketa antolatu zuten Marcel Etxehandi Belokeko lekaidea eta Juan Jose Agirre Lazkaokoa galdekatzeko. Hura polizia-etxera eramán zuten eta hau etxean bertan inkomunikatu zuten. Juan Joseri galdeketaren aurretik miaketa zehatza egin zioten, bere gelan, bibliotekan eta artxiboan.

Zioa edo motiboa zein izango eta, Bearnon Antza etakidea atxilotu zutenean bien izenak aurkitu omen zizkioten dokumentazioa gordetzeko leku egoki bezala.

Hortaz baliatu ziren muntaia antolatzeko, Beloke eta Lazkao zer diren ez balekitez bezala.

Bi urte lehenago, 2003an, bazetozen abisua jaso zuen Juan Josek, *Egunkariakoan*, Arantzazura eta Lazkaora omen zetozen poliziak. Orduan ez ziren iritsi, Aranda de Dueron hartu omen zutelako itzultzeko agindua. Oraingoan iritsi dira, Europatik barrena.

Hamabost guardia zibil sartu ziren lekuak miatzera eta beraiekin frantses polizia bat, etengabe Marcel Etxehandiren galdekatzaileekin komunikatzen zena. Juan Josek aitortua du bere bizitzako unerik garrantziena izan zela huraxe. Dardara uneak ere izan zituen. Saiatu zen han eta hemen ibilaraziz distraitzen, bibliotekako txoko guztiak erakutsiz denbora luzatzen. “Eta artxiboa non da?”, galdetu zioten arte. Orduan dardara. Artxiboaren barruan zer miaturik ez zen falta. Lehen bekaturia aurkitu zuten: “Jefe, *Egin al completo*”, oihukatu zuen batek; eta jauzi egin zuen Juan Josek nahiz eta “inkomunikatuta” egon. Esana zioten, “zu inkomunikatuta zaude, urrutitik segi dezakezu baina ezin duzu hitz egin”. *Egin* egunkaria bezala beste asko zeuzkala eta hori dela hain zuzen artxibozainaren egitekoa, esan zien sutsu. Handik gutxira non dauden *Zutabeak*, galdetzen diote. Eta Juan Josek HABEko *Zutabeak* erakutsi zizkien. Besteak ere erakutsi behar izan zituen, baina ez erantsi gabe, pena zela denak ez edukitzea.

Miaketa bukatu ondoren deklaratzera zihoala, polizia frantsesa hurbildu zitzaion eta zoriondu egin zuen halako biblioteka eta halako artxiboa zeuzkalako.

Deklarazio ostean esan zioten ez zutela orain Madrila eramango, eta abisu berrien zain geldi zedila. Elkarrekin atera ziren ateraino. Kanpo aldean zeuden politikako ordezkari asko herritarrekin batera, eta derrepente Juan Joseri otu zitzaion polizia buruari miaketaren eta deklarazioaren txostenaren kopia eskatzea, artxiboan gordetzeko.

Natural-natural eskatu zion Juan Josek, maleziarik gabe.

ETAko dokumentuak biltzen zitzutela-eta jo zuten Beloke eta Lazkaoko beneditarren monasterioetara Espainiako eta Frantziako poliziek



## SARIAK

Juan Jose Agirrentzat seguru gaude saririk hoberena berak sortu duen artxiboa erabiltzea dela. Saritzat hartzen du, orobat, ikertzaileen premiak asebetetzea.

Baina gizartearen eskertza eta aitortza ez datoz gaizki. Juan Josek ez die muzin egiten.

Orain arte sei aitorten publiko jaso ditu. Goiztiarrena Sabino Arana Fundazioa izan zen. 1995ean aitortu zion lana. Konpainia berezian aitortu ere: berarekin batera sarituak izan ziren Francisco Escudero, Adrian Zelaia, Martin Fiz, Yassir Arafat eta Isaac Rabin.

Hiru urte beranduago, 1998an, jaso zuen Durangoko Liburu eta Disko Azokak urtero eman ohi duen sari nagusia, Argizaiola saria, gau ilunetako argi izatearren.

Handik bederatzi urtera, mende berriaren zazpigarren urtean eskertu zion Euskal Pen Clubak, luma oparitzuz, adierazpen askatasunaren alde agertu duen konpromisoa, Lazkaoko udaletxean ospatu zen ekitaldian.

2009an Manuel Irujo etxeak Lizarran aitortu zion Euskal Herriko memoria historikoa gordetzearen alde egin duen lan erraldoia, IX. Manuel Irujo Saria berari eskainiz.

Eta urte berean bi sari gehiago jaso zituen: Diario Vascoren Goierrri Saria, eskualdeari eman dionagatik. Eta Galtzaundi elkarte tolosarrak ere gizalegez ohoratu nahi izan zuen alegiarra Galtzaundi Sariaren bidez.



Sei sari jaso ditu Juan Josek. Bi jasotzen ageri da hemen: Argizaiola ezkerrean eta eskubikoan Sabino Arana





## “LAZKAOKO” ARTXIBATEGIA

Artxibategi hau ez da Lazkaokoa gaiaren aldetik, baina Lazkaon dago kokatua. Eraikina Lazkaon dago, Lazkaoko Udala ere tarteko da, eta beneditarrak desagertzen badira ere udaleko lurretan geldituko da.

90eko hamarkadan indartu ziren zurrumurruek, Lazkaotik aterako zela, Euskal Herritik kanpora joan zitekeela. Egia da kanpoko erostunik izan zela, baina gutako inork ez du sekula pentsatu Euskal Herritik ateratzea. Izan zitekeen Gipuzkoan, hobe Goierrin eta ahal dela Lazkaon, hori zen gure nahia. Komunitateak Lazkaon gelditzea hobetsi zuen.

Prentsan ere ibili zen gaia. Eta horrek inguruan eragina izan zuen, nola ez. Lazkaoko ezker abertzaleak udal mozio baten bidez Lazkaon gelditzea eskatu zuen. Hauteskunde programan ere sartu zuen, aldame-neko palazioa erosi eta artxiboa hara pasatzea proposatuz. Sozialistek ere sartu zuten artxiboaren gaia bere hauteskunde programan. Batzuek eta besteek gurekin kontatu gabe egin zuten, guk zer ikusirik eta zer esanik ez bagenu bezala. Horrek asko mindu ninduen, errespetu eta fin-tasan falta horrek. Beraiena balitz bezala jokatu zuten.

Diputazioarekin izan ditugun harremanetan monjeen komunitatearen bo-rondatea azaldu diegu, eta errespetatu egin dute. Hemen egin da eraikina, eta bertora ekarri dira paperak eta aldizkariak. Euskal liburutegiko liburuak erosi egin ditu orain, baina bertan geldituko dira, gu hemen gauden bitartean eta kokagune duin bat daukaten bitartean.



Juan Jose bere bulegoan

“Artxibategi hau ez da Lazkaokoa gaiaren aldetik, baina Lazkaon dago kokatua. Komunitateak Lazkaon gelditzea nahi izan du.



Dokumentazio-gunea

“Gaurko eraikinak  
artxibo bizia egiteko aukera  
ematen du.



Gero bulego izango zena

## ERAKUNDEEN JARRERA

Eusko Jaurlaritzak 80ko hamarkadaren hasieratik lagundu du liburutegia inbentariatzen, katalogatzen. 1986tik 1993ra lagun pare bat ordaindu izan du helburu jakin batzuen truke. Zazpi urtez asko lagundu zidaten liburu eta aldizkariak sailkatzen. Harreman oso ona mantentzen dugu gaur ere. Orain EHU eta Donostiako Udal Liburutegian lan egiten dute.

1995-1997 urte bitartean Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean Ondare Bibliografikoa katalogatzeko egin zuten plan baten barruan Baratz enpresak 1900 aurreko liburuak katalogatu zituen gurean, Loiolakoan eta Gasteizko Seminarioan. Laguntza bereziak geroztik ere izan ditugu, 2005etik aurrera.

Baina horiek plan bereziak dira, zeren eta urtero jaso ohi genituen diru-laguntzen aldetik 1992an une larria izan baikenuen Eusko Jaurlaritzarekin. Urte horretan Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu bezala joan zen Madrilera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko kargua utzita. Haren ordezkioak ez zigun laguntzarik berri. Drama txiki bat izan zen hori niretzat, bi lankideen gastua eginda baitzegoen, eta komunitateari eskatu behar bainion laguntza gehigarri hori. Kopuru handia zen gure ekonomia txiroarentzat.

Orduantxe sartu ginen harremanetan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Eli Galdosen garaia zen, eta Maria Jesus Aranburu zen kulturako arduradun. Diru-laguntza mamitsua eman ziguten, eta horri eskerrak, bi laguneren soldatak ordaintzeaz gainera, hainbat bilduma osatu ahal izan nituen eta apalategiak erosi ere bai.

Horrezaz gainera, inportanteagoa dena, Diputazioak serio hartu zuen gure gaia, eta batzorde bat izendatu zuen biblioteka ekonomikoki baloratzeko. Batzordeak jarritako prezioan Diputazioa pronto agertu zen erosteko ere. Baina prozesua ez zen burutu, zenbait korapilo askatu orduko hauteskundeak iritsi baitziren. Alderdi berekoak jarri ziren Diputazioan agintari, baina ez zuten ezer jakin nahi izan.

Harik eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri etorri zen arte. Bera etorri zitzai-gun, inizatiba propioz etorri ere Lazkaora, teknikari eta guzti. Imanol Agote zen orduan Kulturako Zuzendaria. Joan-etorri batzuen ondoren eraikin berri bat hobetsi zuten, alegia, komentuko bazterrak egokitzea baino hobe zela etxe berri bat propio horretarako eraikitzea. Tartean sartu zen Lazkaoko Udala. Eta hitzarmen bat sinatu zuten, 2007an.



Etxe berriaren inaugurazioan, ezkerretik eskuinera: Maria Jesus Aranburu, Rufino Mugika, Markel Olano, Juan Jose Agirre, Patxi Albisu (2010)

Diputazioko hurrengo gobernuak, Markel Olano buru eta Maria Jesus Aranburu kultura diputatu, gure eskariari men eginez, handitu egin zuen eraikinaren tamaina. Gaurko eraikinak artxibo bizia egiteko aukera ematen du, hau da, hemendik aurrera ere materialak metatuz jarraitu ahal izateko.

Eraikin horren inaugurazio eta bedeinkazioa 2010eko abenduan egin zen. Aurten urrats berri inportante bat burutuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lazkaoko Udalak eta beneditarrek fundazioa egingo dute, dokumentazio-gunearen etorkizuna bermatzeko.



Ikertzaileen bulegoak



Erakusketa-aretoa



Dokumentazio-guneko gordailuan Juan Jose eta Miren Barandiaran, haren eskuin eskua

## “NUNC DIMITTIS”

Artxiboa eta biblioteka nirekin bukatuko direlakoan egon naiz sarri. Ni adinean aurrera noa eta nik uztean artxiboak jarraituko ote zuen zalantzak neuzkan, egia esanda.

Jendeak ere gauza bera galdetzen zidan: Juan Jose, eta zure ondoren zer? Euskal Pen Saria eman zidatenean, hitzaldian Dionisio Amundarainek ere horixe eskatu zidan, “bila eta eman diezaiozula etorkizun ona”.

“**Artxiboa eta biblioteka nirekin bukatuko direlakoan egon naiz sarri.**

Gaur egun eraikin honekin eta berori sostengatzeko fundazioarekin etorkizun hori bermatuta ikusten dut. Iraganak badu geroa, hortaz. Horrez gainera, oso pozik nago Miren (Barandiaran) dudalako laguntzaile eta jarraitzaile. Leku guztietara elkarrekin joaten gara, denek ezagutu dezaten. Miren da nire eskuin eskua. Mirenek asko balio du, ikasketak ditu, eta gainera gustatu egiten zaio, hori da inportanteena. Mirenen aukera egin dut nik, baina beste batzuek dute azken hitza eta haiek erabaki beharko dute segida.

Artxibo honek artxibo bizia behar du, jarraitu egin behar du, gu zahartzen ari gara, gauzak ahaztu ere egingo zaizkigu. Nik oraindik aholkulari lana egin dezaket. Baina geroa ziurtatuko duen pertsona bat behar genuen gauza guztien gaintetik. Uste dut osagarri garelara eta komeni dela horrela segitzea.

“**Gaur egun eraikin honekin eta berori sostengatzeko fundazioarekin etorkizuna bermatua ikusten dut.**

“**Nik oraindik aholkulari lana egin dezaket.**

## DOKUMENTAZIO-GUNEA

XVII. mendeko Monasterioaren ondo-ondoan dago dokumentazio-gunearen eraikina, bata besteari loturik. Eraikin moderno eta funtzional hori Iñigo Guibert de Encio eta Iñigo Arizpeleta Olano arkitektoen sorkuntza da.

Dokumentazio-gune honetan kokatzen da Juan Jose Agirreren artxiboa. Bi solairutakoa da, behekoa langile eta ikertzaileentzat, eta goikoa dokumentuen gordailu. Biltegia eta erakusketa-gela ere baditu.

Eraikitako azalera: 586 m<sup>2</sup>  
Azalera erabilgarria: 498 m<sup>2</sup>  
Lehen solairua:  
-ikertzaileen gela: 60 m<sup>2</sup>  
-bulegoak: 50 m<sup>2</sup>  
-biltegia: 27 m<sup>2</sup>  
Bigarren solairua:  
-erakusketa gela: 39 m<sup>2</sup>  
-gordailua: 236 m<sup>2</sup>  
Gainerakoak: 86 m<sup>2</sup>

Eraikin berri honen historia 2007an abiatzen da. Urte horretan Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiak eta Rufino Mujika Lazkaoko beneditarren nagusiak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten.

Inaugurazioa, ordea, 2010eko abendura arte ez da egin.

Zerk luzatu du horrenbeste? Titularitatearen auzia egon da tartean. Ez beneditarren etxea ez lur-eremua zirren

monjeenak, Dukearenak baizik. Ezin zitekeen dokumentazio-gune berria eremu horretan eraiki, gero Dukearen eskuetan uzteko. Nahitaez behar zuen titularitate publikoa. Beneditarrek urte batzuk lehenago erositako lur eremu baten truke burutu zen akordioa. Hala, Lazkaoko Udala egin zen dokumentazio-gunea eraikiko zen lurraren jabe.

Hasierako egitasmoak 390 m<sup>2</sup> zituen. Juan Jose, asegaitza izaki, ez zegoen lasai. Bere iritiz artxiboak artxibo bizia behar du, hazkundera behar du, eta espazio hark ozta-ozta balio zezakeen ordura arte bildutakoa gordetzeko. Foru Aldundiko gobernu berriarekin lortu zuen egitasmoa birdimentsionatzea. Oraingo etxeak 586 m<sup>2</sup> ditu, ia 200 m<sup>2</sup> gehiago.

Ordainketen kargu Gipuzkoako Foru Aldundia (%83,3) eta Lazkaoko Udala (%16,6) egin dira. Goierriko CAFek ordaindu du gordailuko mobiliarioa. Eta beneditarrek dokumentazioaren dohaintza egin dute.

Aurrerantzean dokumentu gune hau Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren esku gelditzen da. Beneditarrek, Foru Aldundia eta Lazkaoko Udala dira patronatukide.



2007an lankidetz hitzarmenaren sinadura:  
Felix Urkola, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Rufino Mujika eta Juan Jose Agirre



2010eko abenduan eraikin berriaren inaugurazioa:  
Rufino Mujika, Juan Jose Agirre, Markel Olano, Patxi Albisu eta M<sup>a</sup> Jesus Aranburu





Goian: inaugurazio egunean Juan Jose azalpenak ematen. Erdian: laneko bulego berria. Behean: gordailua. Eskuinean: eraikina kanpotik

## ESKER ONA

---

Ikertzaile, kontsultatzaile eta bisitari ugari pasatu ohi dira Lazkaotik. Juan Josek pertsonalki izan du harremana bakoitzarekin.

Premia mota desberdinak asetzera jo du jendeak Lazkaora, hala nola, doktorego ikerketak, eskola-lan txikiagoak, kazetaritza azterketak, filmak, dokumentalak, erakusketak edota kontrasteko informazioaren bila.

Ba omen dira 30 bat tesi ia-ia eskusiboki hemengo dokumentazioaz baliatuta burutuak. Hitzaurretan dago egileen aitortza zintzoa.

Gehiago, askoz gehiago, dira dokumentazioa kontsultatzera artxibora etorri eta iritzia bisitarien liburuan idatzi nahi izan dutenak.

Salbuespenik gabe esango nuke, bi kontu azpimarratzen dituzte aho batez: artxiboaren altxor baliotsua eta Juan Josek eskaintzen duen laguntza, eskuzabaltasuna, ematen dituen erraztasunak.

Juan Josek makina bat bider esana du bere zorionik handiena ikertzaileari laguntzea dela. Laguntza eman ahal izateak konpentsatzen diola artxiboa osatzen egin duen gauteguneko lana. Ikertzailea dela artxiboaren helburua, aitortu du sarritan. Esan liteke, esan litekeenez, ikertzaileak berak baino poz kutsakor handiagoz bizi duela dokumentua Juan Josek.

Mundu zabaletik jo dute Juan Joserengana. Euskal Herritik gehienek noski, baina baita ere: Espainiatik zein Frantziatik, Kataluniatik, Galiziatik, Suitzatik, Erresuma Batutik, Italiatik, Alemaniatik asko, Japoniatik, Amerikatik.

### **Jesus Mari Leizaola (1980)**

Atsegin aundiyenez ikusi izan ditut gela abetako liburu-saillak, liburutegiyan jayoa naizen Diputadu izan au. Beneditarrak zaindu dezatela Euzkadi'ren izena.

### **M. Karmen Garmendia (1987)**

Liburutegi hau paregabeko altxorra da gure herriarentzat, eta guzti hau tajutzen, egituratzen, osatzen ari zaren horrek –lan ederra eta eskerga aldi berean– leku haundi bat merezi duzu euskalgintzaren alor zabalean.

### **Ana Aranguren / Javi Bustamante (1982)**

Nos ha parecido una maravilla. La labor de Juan José Aguirre es digna de elogio. Lo que hay aquí guardado no se puede perder. Sería imperdonable.



### **Gurutz Jauregi (1981)**

La elaboración de este libro ha sido posible, en gran medida, gracias a la colaboración del bibliotecario del Monasterio benedictino de Lazcano (Guipúzcoa), Padre Juan José Aguirre, quien, en medio de ingentes dificultades, y con riesgo para su propia persona, ha ido recogiendo y archivando, a lo largo de los años, hasta la más humilde de las hojas volanderas elaboradas en la clandestinidad. (Ideología y estrategia política de ETA).

### **Pedro Ibarra (1987)**

Mi gratitud a J. José Aguirre, bibliotecario del convento de los PP. Benedictinos de Lazcaio, quien se merece algo más que un homenaje por todos los que estamos interesados en investigar la historia de nuestro País. (El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977. Ideología, organización y conflictividad).

### **Xabier Azurmendi Agirre (1990)**

Liburutegia uste baño ederragoa aurkitu dut. Hemeroteka zer esanik ez. Lazkaoko monje etxea erdiaroko monjetxeak bezela kulturaren eta konkretuki euskal kulturaren argitegi da. Bear aña nork aipatu etxe au?

### **Jose M<sup>a</sup> Sanchez Carrión "Txepetx" (1990)**

Euskal-kulturako eta Euskerarentzat hain inportantiak bezain zailak diren une hauetan bihotza poztu dit, biziki, ikusteak nola Beneditarrek gordetzen eta babesten dituzte gure Herriko memoria eta hizkuntza, ixilean baina etengabeko ekintzetan.

### **Hirumi Yoshida (1989)**

Nolako biblioteca! Benetan zoragarria da, eta Euskal herriari buruz zerbait ikasi nahi dutenentzat beharrezkoa da. Badirudi altxorra ateratzen duen iturria dela. Euskaldunen nortasuna babesteko fuertea dela iruditzen zait. Egitan liluratuta nago. (Japonia)

### **Xabier Idoate Iribarren (1990)**

Este material, que debemos considerar un tesoro, se habría perdido de no mediar su inteligente y silenciosa labor.

**Patxi Salaberri (1993)**

Patxi Salaberri, aramaioarra, XVII. mendeko erretorika aztertzen ari den filologo apaltxo hau harriturik gelditu da Lazkaoko liburutegi honetan aurkitutako altxorraz. Baina, egia esan, harrituago gelditu da Aita Agirre liburuzainaren lanaz eta profesionaltasunaz.

**Donald H. Burns (1993)**

No esperaba encontrar la maravilla de biblioteca que aquí hay ni tampoco podría hallar más fina atención que la que me ha brindado el Padre Juan José.

**Anabella Barroso (1995)**

Quiero agradecerle su ayuda de verdad, no podría haber hecho la tesis sin usted y su maravilloso archivo!

**Adolfo Ruiz de Gauna (1991)**

La Biblioteca-Archivo de Lazkao será probablemente el más importante centro de publicaciones y bibliográfico sobre el País Vasco. En el campo que nos atañe contiene todas, y completas, las colecciones periódicas de los grupos políticos y sindicales, clandestinos nacionalistas que actuaron bajo el franquismo.  
(Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX-XX).

**Begoña Aretxaga (1997)**

Este archivo, único en el mundo, debería estar subvencionado para que el padre Joan Jose Aguirre contara con la ayuda que necesita y ciertamente merece.

交流を深める  
ス×イ  
という  
に  
イトを  
書が欠けてい

**Francisco Letamendia “Ortzi” (1994)**

El trabajo ingente de recopilación documental sobre la historia reciente del País Vasco que durante años y años de trabajo exhaustivo ha realizado este Padre en colaboración con el señor Gaínza –gracias al cual tantos profesores universitarios hemos escrito nuestras tesis doctorales–, debe ser objeto de un clamoroso reconocimiento público. (Historia del Nacionalismo Vasco y de ETA).

田浩美 ラスカオにて  
189-10-24

**Diego Muro (2004)**

In terms of sources, I am particularly thankful to Juan Jose Agirre from the Benedictine Convent of Lazkao who, at his own risk, has tirelessly collected material related to Radical Basque Nationalism for the last forty years. (Etnicity and Violence: the Case of Radical Basque Nationalisme)

batek  
ko.

utxitan aurki dezaga  
ste e  
xek e  
duria  
tzen ditu ikerlarialk. Segi hor  
renpora arte.

**Adriano Crulli (2006)**

El Archivo de los P. Benedictinos de Lazkao representa un verdadero tesoro para cualquier investigador de historia y política vasca. No se agradecerá suficientemente la labor de Aita Agirre. Mila esker (Italia).

**Nicola Rooney (2006)**

La biblioteca de este monasterio es, sin duda, la mejor que he visitado durante mis investigaciones. Agradezco mucho la ayuda del bibliotecario P. Juan José Aguirre: no sólo tiene la colección mas completa de fuentes para el estudio de la historia del País Vasco, pero hace todo lo que puede para facilitar el trabajo del investigador. (Ipar Irlanda).

egin aundiyenez ikur izan ditut gela abeta...  
n-saillak, liburategiyan jagoa naizen Diputadu...  
an. Beditanak zaitu dezabeta Zuzkadi' ren izena.  
Leizalde tal. Jan Ma  
27-VI-1980

**Miguel Angel Elkoroberezibar Larrañaga (2008)**

Leku gutxitan aurki dezake ikerlari batek hainbeste erreztasun bere lana egiteko. Juan Joxek emandako azalpenak eta eskaintako jakinduria eta eskuzabaltasuna biziki eskertzen ditu ikerlariak. Segi horrela. Hurrengora arte.

**Christian Sprenger (2009)**

Mis esperas se cumplirían completamente gracias a la ayuda afable, en especial de fraile Aguirre. El efectivo del archivo parece ser bastante rico, un tesoro respecto a la historia vasca muy precioso. Me parece administrado muy profesional por los colaboradores y colaboradoras.

**Bjorn Frank Jensen (2010)**

My expectations were clearly met. The volume of relevant material was simply overwhelming. Anything you could possibly ask for was right there.

(...)

The attention was absolutely great. The staff was extremely helpful, and went out of their way to help. Anything they could do, they did and with a smile on top of it. I am extremely satisfied with the staff and the archivero.

## INKUNABLETIK INTERNETERA

### Monastegiko biblioteka

Monasterioko liburutegia, liburutegi handia da, beneditar etxeen tradizioaren arabera. Bertan 40.000 liburu ki daude informatizatuta eta beste 2.000-3.000 gehiago ere izango dira.

Jatorri desberdinak ditu: gure aurretik karmeldarrak izan zirenez, haiena ere bai; gero Beloketik ekarritakoak, asko eta asko frantsesez. Oso inportantea izan zen humanismo frantsesa eta hori ondo ordezkatua dago hemen. Aita Maurok, Beloken ikasi eta urte horietan Lazkaon bizi zenak, mundu gerraren ondoren Parisko enkanteetan liburu ugari erosi zuen merke.

Hirugarren jatorria, komunitateak berak eskuratutakoak daude, erosita edo dohaintza bidez. Nik neuk ere liburu asko ekarri ditut, asko, apaiz etxeetatik-eta. Bildumak osatzea izan da nire ahaleginik handienetakoa.

Horri buruz badut anekdota bat polita. Behin apaiz bat bisitatzera joan ginen Nafarroako Lezaunera. Apaiz hori gerrakoan Lazkaora erreketen buru sartu zen eta gure etxean egona zen. Argazki bat bagenuen. HBkoa zela esan zigun. Auskalo. Etxean geundela galdetu nion ea libururik edo ba ote zuen. Lehenagoko apaizak bazituela nahiko liburu zahar esan zidan, eta hartzeko. Bai hartu ere, liburu zahar eta eder askoak!

Altxor ugari dago liburuen artean. Hartu eskuetan *Calepini Dictionarium Decem Linguarum*, 1500ekoa, 1.000 orrialdetik gora, perfektu dagoena, eta dardara ematen dizu. Inkisizioak espurgatua dago. Hizki gotikoz inprimaturikoak ere baditugu, Gutenbergek berak ere karaktere gotikoak erabili zituen.

Zazpi inkunable ditugu, horietako bat bi liburu ki handitan, beraz zortzi. Horiek, jakina da, 1500 aurrekoak dira. Baina badira nahiz eta 1500 aurretik inprimatzen hasi gerora argitaratu zirenak, eta horiei "inkunable ostekoak" deitzen zaie. Horietako asko dugu. XVI. mendekoak 420 liburu ditugu.

Pedacio Dioscorides famatuaren itzulpena ere badugu, 1563koa, xilograbatuz aberats hornitua, eder-ederra. Dioscorides bera grekoa zen, medikua, farmakologoa eta botanikoa, eta bere liburu a antigoaleko kontsulta-liburua zen sendagileentzat. Ale hori ere Inkisizioaren aginduz espurgatua dago. Zen-



Monasterioko liburutegiko apalak



Juan Jose liburu zaharrak eskutan



tsuratutako pasarte bat argiaren kontra jarrita irakurri ahal izan dut: barbantzuei buruzkoa da, barbantzuek sexu indarra ematen dutela azaltzen duena. Inkisizioari ez zitzaion zientifikoa iruditu, antza.

## Euskal biblioteka

Nire lehentasunetako bat "euskal biblioteka" indartzea izan da. Espezializatu beharra zegoen, eta Euskal Herrian egonda, eta 1970 inguruko biblioteken egoera ikusita, euskal gaien espezializatzea erabaki genuen. Hasiara hartan 2.000 bat liburukiz osatuko zen liburutegia. Eta orain 19.000 badira gutxienez; horietatik 17.000 liburu katalogatuta daude eta Diputazioak erosi ditu. Nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiarenak izan, liburuok hemen geldituko dira, baldintza duinak mantentzen diren bitartean behinik behin.

Liburutegi hau, orain baino lehen, 1995ean hain zuzen, batzorde batek baloratu zuen ekonomikoki, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta beneditarrek elkar hartuta. Prezio kontuan bada doble eskaini duenik ere. Bat baino gehiago interesatu izan dira. Beneditarrok, ordea, diru kontuak gorabehera, Lazkaon gelditzea nahi genuen, edota Goierri edo Gipuzkoan.

Liburu hauek zenbat balio dute? Ez dute preziorik, niretzat. Saltzen duzu bat eta horren diruarekin auto bat erosten duzu, istripu bat baduzu eta autoa txatarrera. Eta? Hauek, ordea, betiko balioa dute, altxorrek dira. Horrela jokatzen dut nik.

Baditugu altxorrek gurean. Halakoa da euskaldun-euskalduna izan zen Azpilikueta *Doctor Navarrusen* liburua, adibidez. XVI. mendeko bigarren eta hirugarren edizioak ere baditugu, dozena pasa. Horiek ere altxorrek dira. Estenagarena ere bai, "in vulgo easonense"n inprimatua, Donostian alegia.


Euskarazkoetan ere altxorrek erruz ditugu. Mendiburu bat, adibidez, bai hiruzpalau tomatokoa baina baita ere hamaika liburukitan atera zena. Hamaika liburukitako hori edukitzea oso-oso zaila da. Baditugu Larreguy, Artxu, Mihura, Belapeyre, lortzen zailak direnak eta bakarrak.

1900 aurreko liburuek osatzen dute fondo zaharra deiturikoa, eta aipatutakoen gainera horietan artean azpimarra daitezke beste asko, hala nola: Esteban Garibairen *Compendio historial de las crónicas y universal historia* (1571), Euskal Herriko eta Espainiako lehen historia; edo Arnaud Oihenarten *Notitia Utriusque Vasconiae* (1638), Euskal Herriko lehen historia, latinez; edo Joannes Etcheberriren *Manual devotionezcoa* (1669) eta Axular handiaren *Gueroco guero* (1690 ingurukoa).

Euskal Bibliotekak ere balio handiko liburuak ditu

Funts zaharrez gainera, liburutegi baten balioa bere bildumetarik neurtu ohi da. Ahalegin berezia egin dut bildumak osatzen.

Ahalegin berezi-berezia egin nuen, baita ere, frankismo garaian diasporako euskaldunek idatzi zutena biltzen. Buenos Airesko Ekin argitaletxeak argitaratu emandako guztia dugu, esaterako. Orain liburutegi askotan aurki daitezke liburu hauek, baina ez garai batean. Garai hartako bibliotekariak ez ziren horretaz arduratzen. Urte luzetan horien ia-ia eskusiba genuen Lazkaon.



Liburu zahar ugari gordetzen ditu liburutegiak. Horien artean dozenaka kristau ikasbide

“ Ahalegin berezi-berezia egin nuen frankismo garaian diasporako euskaldunek idatzi zutena biltzen.



**Euskal hemeroteka**

Euskal gaien hemerotekan 6.000 argitalpen ditugu. Hemeroteka hau eraikin berrian dago integratua orain, paperekin batera dokumentazio-gunean.

Monasterioko bibliotekak bere hemeroteka du aparte.

Euskal hemerotekan honetan badira altxorrak, badira bitxikeriak, bai, baina bereziki baloratu behar da bildumak osorik egotea.

Euskarazko aldizkari zaharretan oso-osorik ditugu Baionako *Fedearen propagacioneco urtecaria* (32 urte), Donostiako *Euskal Erria* (38 urte) edo Baionako *Gure Herria* (46 urte).



Euskal kulturako aldizkari askoren bildumak osatzea lortu du Juan Josek



Oro har, multzo desberdinak bereiz ditzakegu. Esaterako, EAJren hasierako aldizkari inportanteenak, gehien-gehienak dauzkagu, Arana Goiriren *El Correo Vasco*, *Aberri*, *Aberrija*, *Euzkadi*. Sabino Arana Fundazioan eta hemen daude horiek.

Beste multzo batean koka ditzakegu klandestinitatean eta erbestean ateratakoak: ANVren *Tierra Vasca*, EAJ eta bere inguruak ateratako gehienak (*Euzkadi*, *Gudari*, *Eusko-Gaztedi*), ETAk ateratako guztiak: *Zutiken* bertsiso ezberdinak, *Zuzen...*



EAJren hastapeneko aldizkari gehienak daude gordailuan



Exilioan eta barne-exilioan argitara emandako aldizkari asko gordetzen dira gunean

Klandestinitateko zein erbesteko horiek guztiak oso inportanteak bilakatu dira leku gutxi batzuetan bakarrik daudelako.





ETaren agerkari eta barne buletinetan aberatsa da dokumentazio-gunea



Jendearen kontsultetan, huez gainera, badira izar gehiago, hala nola, 70-80ko hamarkadetan alderdi politikoan aldizkariak eta barne boletinak, beste inon ez baitira gorde: EHAS, HASI, ESEI, ESB, EIA, LKI, EMK, EE, LAIA, Auzolan, HB, eta besteenak. Berauetako barne eztabaidak eta aktak ere gordezen ditugu.

Beste inork bildu ez dituen aldizkari txiki eta marjinalak ugari ditugu, auzoetakoak eta hola.

Bitxien artean aipatzekoak dira Etxeberriak-eta Polinesian 1934an atera zuten *Wuhu'ko egutegia* edo Baionako *Almanak uskara* edo *Ziberouko egunaria* (1887tik aurrera). Edota Mexikon atera ziren bi: *Euzkotarra* goiztiarra (1907-1909), "Jaungoikoa eta Lagi-Zarra" lelopean; eta 1950eko *Ekin*, ale bakarra.

Aldizkari bitxietan bitxienetakoak izango dira hiru hauek, bata República Dominicanan (1989), bestea Polinesian (1934), eta hirugarrena Mexikon (1950) argitaratu emanak



## Bildumak

Aldizkariak bezala bildumak ere eraikin berriak kokatzen dira.

Bildumatzat hartzen ditugu gai edo gertakari jakin baten ardatzean urte-tan osatu edo bildu ditudan material-multzoak.

Dokumentu-multzo hori kanpoko batek osatua jasotzen dugunean, hori artxiboa da.

Nire ahalegin nagusia bildumak osatzen egina dela esango nuke. Paperen bila, alegia, txikiena ere handia baita niretzat. Paper bat aurkitzeak sekulako poza ematen dit, eta paper bat galtzeak sekulako mina.

Biltzeko orduan alde zurretiko irizpiderik ez dut izan, baizik eta bildu eta bildu. Zer bildu? Euskal Herriarekin zerikusia duen guztia, politikan, gizartean, kulturean. Bildutakoa paperezko poltsatan gordetzen nuen, eta gero egin nituen neuk landuriko alantzeekin zintzilarioak, gutxienez 1.000 bai. Lehenengo bildu eta gero sailkatu, hori izan da nire jokabidea.

Sailkatu ondoren 90 bat bilduma osatu ditugu. Denek ez dute balio bera, baina nik ez daukat bata bestearen gainetik baloraterik. Niretzat paper ba-koitzak dauka bere historia, bere bidea, bere sentimendua. Ezin dut aukeratu.

Bilduma tematikoak dira denak, salbu bat. Bat hori kronologikoa da, egu-nez egun antolatua, gertakariak gertatu ahala ordenatua. Hamar bat kaxa 1975etik 1981era, urte erabakigarriak. Hemen daude zazpi urte horietan al-derdi politiko, sindikatu, kultur eta gizarte erakundeek sortu duten dokumen-tazioa: liburuxkak, panfletoak, oktobilak, kronologikoki gordeta. Ni horrekin hasi nintzen. Arrakasta handia du ikertzaileen aldetik.

Arrakasta handiena, hala ere, alderdi eta erakunde politikoaren dokumen-tazioak dauka, zalantzarik gabe. Horien artean daude, ESB, ESEI, EHAS, HASI, HB, LAIA, EIA, EE, Auzolan, LKI, EMK, EAJ, EA, edo ETA, KAS, Jarrai. Horietako askotan, gainera, barne dokumentazioa dago.

Hauteskundearen bildumak ere tiradizo handia du. 1947tik gaur arte egin diren hauteskunde eta erreferendumen informazioa biltzen da.

Sindikatuaren informazio asko dugu; LABena, adibidez.

Aberri Egunen inguruan ateratako dokumentazioa gorde dugu, 1932tik hona.

Presoetz, ekologismoaz, feminismoaz... dokumentazio ugari bildu dugu. Elizaz eta apaiz mugimenduez ere bai, Serafin Esnaolak emandakoa tartean.


Dokumentazio kulturala ere badago, euskararekin zerikusia duen infor-mazioa, irakaskuntzarekin, ikastolekin zerikusia duena, herritako festa eta jai programak.




Dokumentazioa biltzeko izan du lehentasuna Juan Joseren jokamoldean. Sailkatzen ere lan handia egin da, baina asko dago egiteko



**“Zer bildu? Euskal Herriarekin zerikusia duen guztia, politikan, gizartean, kulturean.”**





“ Amets bat badut:  
Lazkao bihur dadila  
informazio-mota honen  
inguruko guztia bilduko  
duen erreferentziako  
dokumentazio-gunea.



Dokumentuak sailkatze prozesuaren zain



## Artxiboak

Artxiboak ere eraikin berrian kokatzen dira.

Dokumentazioa biltzen modu serioan ari ginela ikusi eta gero iritsi zaizkigu artxiboak, batzuk pertsonalak, instituzionalak besteak. Bidezkoa da. Jendeak aurrena ikusi egin behar du badagoela leku bat fidagarria, serioa, konfiantzazkoa, bermea eskaintzen duena, independentea, ikertzaileen zerbitzuko dagoena. Ikusten denez frogatu dugu hori guztia dela Lazkaoko dokumentazio-zentroa. Pozgarria da niretzat. Hemendik aurrera uste dut errazago izango direla gauzak.

Amets bat badut: Lazkao bihur dadila informazio-mota honen inguruko guztia bilduko duen artxibategia, erreferentziako dokumentazio-gunea.

Gaur-gaurkoz dozena bat pasatxo dira gordetzen ditugun artxiboak. Gu-txi batzuk oso goiz iritsi zitzaizkigun, 80ko hamarkadan; bat bakarra jaso genuen 90eko hamarkadan. Eta beste guztiak mende berrikoak dira, horietatik sei lehen hamarkadakoak eta bigarren hamarkadakoak hiruzpalau.

Horietatik hamar bat izango dira ikonoak, baina aukeraterik ez daukat. Galdetu izan didate, bat bakarra aukeratu beharko bazenu, zein? Ez dakit erantzuten. Beti esan diet: emakume bati galdetzen badiozu zein gustatzen zaion gehiena, lepokoa ala eskumuturrekoa, urrezkoa, burdinazkoa ala plastikozkoa izan... zer aukeratuko luke? Ez dakit. Segun eta bakoitzak zein balio sentimental duen, ezta?

Inportantzia handia du Euskadiko Ezkerraren artxiboak, edo Juan Mari Bandresen artxiboak, seguru, baina beste batzuek ere bai, Lurraldea Koordinakundearenak esate baterako, edo Costa Vasca No Nuclear delakoak (Gezia fundazioak emandakoa), edo Senideak elkartearenak. Elkarte horretako hiru multzo jaso ditugu: Hernanikoa, Arrasatekoa eta Gasteizkoa.

Horien inportantzia, azken batean, ikertzaileek erabakitzen dute, ez nik.

Dauzkagun artxibo batzuk pertsonalak dira: Jesus Elosegiren argazki-artxiboa, Frantzisko Abrisketaren artxiboa, Juan Mari Bandresena, Jose Mari Portellena, Begoña Aretxagarena, Jose Manuel Balentziaga *Balentxirena*. Beste batzuk elkarte edo alderdienak dira: Euskadiko Ezkerra, Busturialdeko Ezker Abertzalea, Senideak. Eta koordinakundearenak, hainbat: Lurraldea, Elkarri, Costa Vasca No Nuclear, Estradiziorik Ez! ekimena. Azken aldian berri gehiago ari zaizkigu sartzen.

## Pegatinak, kartelak eta beste

Mota guztietako pegatinak eta kartelak dauzkagu, guztiak ere euskal gaien ingurukoak. Gehien-gehienak 60-70eko hamarkadetatik gaur egunera artekoak dira, tardofrankismo eta trantsizioakoak gehienak. 70eko hamarkadan hasi nintzen biltzen, garaia oso aberatsa zen, urre-garaia esaten dut nik. Garai aberatsa izateaz gainera, beste inork ez zituen biltzen. Bakarra izateak baditu bere abantailak.

Zenbat esaten ez dakit, baina pila daukat. Milaka asko. 20.000 kartel?, 26.000 pegatina? Denak ez daude katalogatuta, errepikatuak ere badira.

Egutegiak ere asko dauzkat, asko, patrikarako horiek. Denetarik dago, kulturalak, politikoak, komertzialak, arruntak eta bitxiak.

Eskuko egutegi asko dago gordailuan, gai askotarikoak



Gordailuko planero berrietan materialak txukun sailkatuta


**Pegatinak eta kartelak, guzti-guztiak dira euskal gaien ingurukoak.**



Planeroetan sailkatu aurretiko apalak



Euskal Herrian eta munduan zehar ospaturiko Aberri Egunen dokumentazioa



1976ko erreferendumeko panfletoak alderdien jarrerekin



Esparru eta gai askotariko panfletoak, kartelak eta pegatinak milaka asko gordetzen dira gordailuko planero eta apaletan



# BILDUMAK ETA ARTXIBOAK

## Bildumak

### 1. POLITIKA

#### 1.1. Alderdi eta koalizio politikoak

Aralar  
Auzolan  
Batasuna  
Batzarre  
EA  
EAE-ANV  
EAJ-PNV  
EE  
EH  
EHAS  
EIA  
EKA  
EMK  
ESB  
ESEI  
Eskuineko Alderdiak  
Euskal Ezkerra  
Euskaldunia  
Ezkerreko Alderdiak  
H1!  
HASI  
HB  
IU-EB  
LAIA  
LKI  
NaBai  
PCE-EPK  
Plazandreak  
PSE-PSOE  
UA  
Zutik

#### 1.2. Erakunde eta mugimendu politikoak

Anarkistak  
ASK  
Askatasuna  
Ekin  
ETA  
Ezker Abertzalea  
Haika  
Jarrai  
KAS  
Segi

#### 1.3. Presoak

Amnistiaren Aldeko  
Batzordeak  
Etzerat  
Presoak  
Senideak

#### 1.4. Beste batzuk

1932-1992 dosierra  
Aberri Eguna  
Bakegintza  
Ekimen politikoak  
Elkarri  
Elkarri (V-G)  
Errepresioaren aurka  
Errepresioaren aurkako taldeak  
Hauteskundeak  
Nazio eraikuntza  
Sergei

### 2. LANA

CCOO  
ELA  
Enpresak  
LAB  
Langile Mugimendua  
STEE-EILAS  
UGT

### 3. GIZARTEA

#### 3.1. Mugimendu ekologista

AHT  
Eguzki  
Lemoiz  
Mugimendu Ekologista

#### 3.2. Emakumea

Emakumea

#### 3.3. Eliza

Ezkiogako agerpenak  
Eliza

#### 3.4. Eta beste

Antimilitaristak  
Antisistema eta  
desobedientzia zibila  
Gazteak  
Giza eskubideak  
Internazionalistak  
Mugimendu herritar eta  
asanblearioak  
Beste batzuk

### 4. KULTURA

Bertsoak  
Euskara  
Ikasleak  
Ikastoletako jaiak  
Irakaskuntza  
Irungo Alardea  
Jaiak  
Komunikabideak  
Korrika  
Seaska

### 5. ETA BESTE

1975-1981 kronologia  
Egutegiak  
Eusko Jaurlaritza  
Gernikaren bonbardaketa  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Goierri  
Iparralde  
Lazkao  
Memoriak  
Zaharrak  
Beste batzuk

## Artxiboak

1. EUSKADIKO EZKERRA

2. LURRALDEA KOORDINADORA

3. LABE GARAIAK

4. SENIDEAK

5. JOSE MARIA PORTELL

6. FRANCISCO ABRISKETA

7. BEGOÑA ARETXAGA

8. COORDINADORA POR UNA  
COSTA VASCA NO NUCLEAR

9. JESUS ELOSEGI

10. ELKARRI (V-G) FUNTSA

11. BALENTXI FUNTSA

12. BUSTURIAKO EZKER  
ABERTZALEA

13. JOSE MARIA SARASIBAR

## ZER EGIN AURRERANTZEAN?

Artxibo bizia denez, dagoena osatuz eta dokumentazio berria inguratuz jarraitu behar dugu. Orain arteko espirituari gorputza emanez, esango genuke.

Bi egiteko nagusi ikusten ditut hemendik aurrera: batetik, orain arte bildutakoa antolatu, eta aurrerantzean ere bilduz jarraitu, betetik.

Ni neu biltzeaz arduratu naiz gehiena. Dokumentu asko bildu dut, asko. Baina lan handia gelditzen da horiekin egiteko: espurgoa egin behar da hasteko, eta gero deskribatu, inbentariatu. Prestalan ugari, jendearen eskuetan utzi aurretik. Egin kontu zenbait kasutan material "delikatua" dela, barnekoa, segetua, pertsonala, bizi direnen izenak agertzen direla eta legezko arazo ugari egon ohi dela holakoetan. Eta ez da hori bakarrik: artxibo batzuk baldintza eta guzti jaso ditugu: oraingoz ez argitaratzeko, esaterako. Konfiantza aldera lortuak izan dira, eta hori sakratua da. Baldintza horiek ulertu egin beharko dituzte ikertzaileek. Iruditzen zait, gainera, lan delikatu hori guk geuk egin behar dugula, kanpoko inoren eskutan utzi gabe.

Zer bilduko dugun aurrerantzean?

Orain arte bezala material mota bera bildu beharko da, aldizkariak, pegatinak, panfletoak, kartelak, hau da, paperak eta paperak.

Baina paperak bakarrik ez. Euskarri elektronikoa ere landu beharko dugu, orain baino gehiago. Orain ere eduki badugu euskarri horretan hainbat material. Aurrerantzean Internetek ematen dituen aukerez baliatu beharko dugu.

Orain arte bezala, erakunde ofizialetatik at sortzen dena bilduz jarraituko dugu, 70eko eta 80ko hamarraldietakoa osotuz eta orduko dokumentazioari segida emanez.

Euskal politikaren bide berriek ematen dutena jasoko dugu, politika eta gizarte ekimenak, bakegintza bideak, errepresioa eta presoak, hauteskundeak eta kontsultak. Mugimendu soziopolitikoaren alorra ere landuko dugu, sindikatuak, herritarren ekimenak. Eta kulturaren eremua, bereziki euskararen proiektuak, eta irakaskuntza.

Euskal gizartean presentzia esanguratsua daukatenak, oraintxe bertan daukatenak eta edukiko dutenak ere landuko ditugu: antinuklearrak, antimilitaristak, AHTren aurkakoak, feminismoa.

Bidea ibiliz egiten da, eta gure etorkizuna orain arte eman ditugun pausoen bidetik doa. Betiere, adi eta erne ingurua aztertuz, zer sortuko.

“Hogei urte gehiago beharko nituzke hau dena ondo jartzeko, jendearen eskura jartzeko.

“Bi egiteko nagusi ikusten ditut hemendik aurrera: orain arte bildutakoa antolatu, eta aurrerantzean ere bilduz jarraitu.